

AHOZKOTASUNAREN  
GARRANTZIA  
HIZKUNTZAREN  
NORMALIZAZIOAN

Izena: Alazne Landeta Perez

Tutorea: Kike Amonarriz Gorria

Sakontze egitasmoa

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Metodologia.....	7
3. Eremu kurrikularra.....	9
3.1 Marko teorikoa	
3.1.1. Ahozkotasuna eta hizkuntza kalitatea.....	9
3.1.2. Debatearen ezaugarri nagusiak.....	11
3.1.3. Eztabaida gaia.....	15
3.1.4. Egitura.....	16
3.1.5. Partehartzaileak.....	17
3.1.6. Ezaugarri testualak.....	18
3.1.7. Ezaugarri linguistikoak.....	20
3.2 Proposamen didaktikoa	
3.2.1. Sarrera.....	24
3.2.2. Helburu nagusiak.....	24
3.2.3. Edukiak.....	25
3.2.4. Prozedura saioz saio.....	26
3.2.5. Ebaluazioa.....	38
4. Eremu ez – kurrikularra.....	39
4.1 Hasierako hitzak.....	39
4.2 Hizkuntza komunikaziorako giltza.....	41
4.3 Hizkuntzaren erabilera indartzeko estrategiak.....	42
5. Ondorioak.....	45
6. Bibliografia.....	47
7. Eranskinak.....	50

## 1. SARRERA

Proiektu honetan ahozko hizkuntzak eremu kurrikularrean zein ez kurrikularrean hizkuntzaren normalkuntzan duen garrantzia abiapuntu hartuta, berau lantzeko proposamen bat egingo dut. Eguneroko bizitzan ahozko jardunak bere garrantzia du, bai esparru publikoan bai esparru pribatuan.

Eremu kurrikularrean, garrantzitsua iruditzen zait ahozko hizkuntzaren ikasketa prozesua ikasgai guztietako ikas-irakaskuntza jardunean txertatzea, hizkuntza beti gogoan izatea. Prozesu honek hainbat betebeharrak ditu, besteak beste: hizkuntza xedeak dituzten eduki-ikasgaiak egituratzea, hizkuntzaren erabilera bultzatzeko asmoz eguneroko bizitzan suertatu daitezkeen egoera errealekin ekintzak antolatzea eta ikasleari hizkuntzaren kalitateaz hausnartzeko bidea eskaintzea.

Eremu ez-kurrikularrak ere bere garrantzia du, ez duen pisuagatik soil-soilik, baita dituen ezaugarri kualitatiboengatik ere, hau da, hizkuntzak gauzak egiteko erabiltzen diren neurrian eskuratzen direnez, komunikazio jarduerak izan behar dute hizkuntz ikasketaren ardatz eta oinarria; bada, eremu ez-kurrikularrean ere irizpide hori da baliatu beharrekoa.

Eremu kurrikularrari dagokionez, Inés María García Azkoaga, Ainhoa Imaz Gaztelurrutia, Leire Diaz de Gereñu Lasaga eta Alaitz Alegria Susperreguik (2010: 8) egindako artikuluan esaten dutenaren arabera, belaunaldi askotan hizkuntza idatzia izan da hizkuntzen irakaskuntzaren ardatz; jarduera didaktiko gehienak hizkuntza idatzia lantzerantz bideratuta egon dira eta, sarritan, literatura-ereduetan oinarrituta.

Are gehiago, gehienetan, ahozko hizkuntza nahiko baztertuta geratzen da, alde batetik, kontzeptua bera zaila delako mugatzen; bestetik, ez delako lan makala zer eta nola irakatsi behar den zehaztea eta erabakitzea. Hainbat aspektu egiten dute neketsuago ahozko hizkuntza lantzea: baliabide urriak, ikasle kopurua, metodologia arazoak, ebaluatzeko tresnen urritasuna, eta abar luze bat.

Aditu gehienak eta oinarrizko curriculumak bat datoz ahozkoa ikastetxeetan landu beharraren garrantzia azpimarratzerako orduan, hala ere, badirudi teorian horren argi dagoena, praktikan ez dela hain erraza. Esan bezala, zailtasunak bat baino gehiago dira (bitarteko falta, formaziorik eza, ez dago ohiturarik...); ahozkoa lantzen denean inprobisaziorako joera nabarmena dago.

Ahozko hizkuntza ikasgeletan lantzeko, lehenengo eta behin metodologia erabat aldatu behar da. Ahozko hizkuntza bultzatzeko eta indartzeko, aukera eman behar zaio ikasleari hitz egiteko, gela barruan ikasleak izan behar dira protagonista.

Metodologikoki alde handia dago, irakaslearengan zentratutako klaseen (klase magistralak) eta klase partehartzaileen eta dinamikoen artean. Eskola magistraletan gehienetan galdera/erantzuna eskema jarraitzen da (irakasleak galdetu eta ikasleek erantzun), talde handian lan egiten da ... Partehartzaileetan, aldiz, talde lanak bultzatzen dira, interakzioa eskatzen duten ekintzak programatzen dira... Dena dela, kontuz ibili behar da kolektiboki lan egitearekin. Sarritan, ikasleak taldeka aritu arren, ez da segurua izaten denek era berean lan egiten dutenik; denen partaidetza segurtatzeko, ikasle bakoitzak zeregin bat izan behar du eta honekin lotura estua du debateak.

Honen harira, ahozkotasanaren alorrean, debatearen generoa landuko dut, ahozko hizkuntza formala, ikasleak iritzia ematera trebatuz.

M. Sainz, A. Ozaeta eta E. Garroren (2009) artikuluan esaten den moduan, euskararen egoera soziolinguistikoa tarteko, askotan, eztabaida egoten da ahozko formala edota lagunartekoa landu behar ote den. Baina gauza ez da bata edo beste landu behar den eztabaidatzea, baizik eta zer, noiz eta nola egin behar den; debateak sortu daitezke, bai hizkuntzaren esparru formalean bai hizkuntzaren esparru ez formalean. Denboraren bideratze egoki bat eginez gero (ikasgela barruan dauden orduak eta ikasgelaz kanpo daudenak kontuan hartuta) hizkuntza formala eta ez-formala lantzeko aukera egongo litzateke, adibidez, hizkuntza lantzeko eskola orduetan hizkuntza formala landuz eta eskolaz kanpoko orduetan hizkuntza ez-formala lantzeko ekintzak antolatuz (txangoak, jolasak, mintzodromoak ...). Dena den zilegi da, ahozko formala eskolan lantzen ez bada, ez da beste inon landuko; horrek izan ditzakeen ondorio guztiakin.

Genero hau aukeratzeko arrazoiak hainbat dira: alde batetik, A. Cros eta M. Vilàk, (2001:2) beren artikuluan esaten dutenari erreferentzia eginez, ikasleak (umeak zein gazteak) eguneroko bizitzan sarritan argumentatu eta negoziatu behar izaten du eta, oro har, bizitzako edozein arotan. Adin ezberdineko ikasleei aukera eman behar zaie argumentaziorako baliabideak ikasteko, mailaz maila, bakoitzaren gaitasunetan oinarrituz.

Hau da, ikasle guztiei eskaini behar zaizkie egoera zailetan trebezia jarduteko gutxieneko tresnak eta esku-hartze didaktiko egokiak. Honen erantzukizuna eskolarena da, zentroko irakasle taldearena batez ere. Honetarako, baliabide oso egokitzat jotzen da debatea.

Gainera, hizkuntzaren erabilera historiari, gizarteari eta kulturari hertsiki lotuta dagoela uste dut. Hau da, edozein hizkuntzari (gure kasuan euskara) ikuspegi sozial eta kultural batetik erreparatzen badugu, ondorio onuragarriak eta mesedegarriak izango ditu bai hiztunon hizkuntza beharrei dagokienez eta bai, esan bezala, hizkuntzaren didaktika eta ikaskuntzari dagokienez ere.

Bestetik, gainontzeko ikasgaiekin lotu daitekeelako: gainontzeko ikasgaietan baliagarri suertatu daitekeelako. Hau da, debate bat edozein gairen inguruan eraiki daiteke, ikuspuntu zientifiko batetik, ikuspuntu linguistiko, filosofiko edota sozial batetik edozein gai hartuta. Honek lotura estua du Sainz Osinaga, Garro, Ozaeta, Perez Lizarralde eta Egizabalek (2009: 545) diotenarekin: hizkuntzaren ikas-irakaskuntza prozesua euskal curriculumeko beste irakasgai batzuekin (Filosofia, Matematika, Ekonomia, Historia...) batera landu behar da, batez ere, etxeko edo lagunarteko hizkuntza ( hizkuntza ez-formala) eta eskolako hizkuntza (hizkuntza formala) bat ez datozen testuinguruetan. Dena delako ikasgaiari buruzko ezaguerak eraikitze beharrezkoa da alderdi linguistikoei erreparatzea, hizkuntzak arloko ezagutzak bideratzen baititu, eta esaterako, ulermena ezagutzaren eraikuntza aurreko baldintza baita.

Hizkuntza eta curriculumeko arloak integratzeko ez da nahikoa hizkuntzako eskolak ematea eta ez da nahikoa, ezta ere, hizkuntza hori komunikazio-hizkuntza izatea. Hizkuntza batean komunikazio gaitasun altua lortzeko, beharrezkoa da ikasgelan egoera ezberdinak sortzea, zeinetan edukien esanahia eta forma lantzen diren. Edukien esanahia landuz, ikasleak ulermen maila altua lortuko dute: forma landuz, aldiz, ikasleek ahozko zein

idatziko testuak gauzatzeko gai izango dira. Eskolako ikasgelen ahozko ekoizpenak sarritan, irakasleen galderei emandako erantzun soilak dira, laburrak eta eskasak.

Orain arte ahozko hizkuntzak eremu kurrikularrean duen garrantziaz aritu naiz, baina ez dugu ahaztu behar eremu ez kurrikularrean ere, ahozko hizkuntzak bere garrantzia duela. Egunerokotasunean tai gabe darabilgu ahozko hizkuntza. Bizitzako edozein egoeratan familian, lagunekin, igogailuan, telebistan, klasekideekin, lankideekin, egunkarrietan ...

K. Amonarriz, I. Arruti eta E. Osa (2004) artikuluan diotenaren arabera, eremu kurrikularra eta ez kurrikularra elkarren osagarri dira edo izan beharko lukete. Eremu ez-kurrikularrak eremu kurrikularrak eskaintzen ez dizkigun aukerak eskaintzen dizkigu kale hizkera edota hizkera kolokiala bezalako hizkera mota ezberdinak lantzeko: besteak beste, euskalkiak, gaikako hizkera ezberdinak (kirola, musika, ea.). Izan ere, eskola orduz kanpoko ekintzen esparrua baita –seguruenik– hizkera kolokialak, ez-formalak eta afektiboak lantzeko esparrurik interesgarrien eta eragingarrienetako bat. Ingurune horretan, eremu kurrikularra eta ez-kurrikularra elkarren osagarri izaten dira.

Amaitzeko, esan beharra dago bataren zeregina ez da euskararen ezagutza – modu isolatuan eta testuingururik gabe – bideratzea, eta bestearen zeregina ez da ere ikasitako hori balia dadin urratsak egitea.

## 2. METODOLOGIA

Lan hau egiteko, Arrankudiagako eskola publikoko irakasleekin jarri naiz hartu emanetan. Arrankudiagako eskola, eskola txikia da, proiektuetan oinarrituta egiten dute lan, beti. Haurrengandik gertu dauden gaiak lantzen dituzte, askotan ikasleek beraiek proposatuta. Izan ere, irakasleen iritziz, garrantzitsuena, ikasleek gai zehatzak landu beharra sentitzea da, eta gai ugari lantzen dituzte era horretara.

Eskolako zuzendaria elkarrizketatu nuen eta hainbat galderen artean lan honen muina den ahozketasuna zelan lantzen duten galdetu nion. Hainbat informazio jaso nuen eta erabiltzen dituzten berbaldi trebetasunak garatzeko irakas - estrategiak azpimarratu nahi nituzke.

- Orientazio estrategiak: gaia proposatzen dute, eta zertaz hitz egin orientatzen dute. Gehienetan, iruzkin irekian galderak izaten dira (“Zergatik gertatu da hori?”, “kontaidazu...”, erantzun mota seinalatzen dutenak – arrazoiak edo azalpenak-, baina haurrari aukera askoren artean hautatzen uzten diote. Haurraren erantzun hori laburra izaten da maiz, osoa eta zabala behar lukeenean ere bai.
- Errazteko edo laguntzeko estrategiak: haurrak bere berbaldiak hartu duen bidea sakonago aztertzea dute helburutzat, arrazoibidean eta hizketan esplizituagoa. Argiagoa eta konplexuagoa izatea. Estrategia hauei esker, ikaslea ber hitzez ohartzen da; esaten duenari eta esateko moduari erreparatzen laguntzen diote. Batzuek osatzera bultzatzen dute, hau da, xehetasun gehiago edo ideiak modu osoagoan ematera; beste batzuek, berriz, arreta alderdi jakinen batean jartzen laguntzen diote: galdera itxiak izan ohi dira, zehazten laguntzen diotenak ( “nola gertatu da?”, “non zegoen zehazki?”); beste batzuek, aldiz, esandakoa egiaztatuz eramatzen dute ikaslea, ideia egokia ote den berrikustera ( “erori egin da ala bota egin dute?”, “ez dut ondo ulertzen zer esan nahi duzun”), edo forma egokia ote den berrikustera ( “hautsitak daude?”). Galdera horiei esker, hobeto ohartzen da bere hitzez, eta ideia berriro adieraztera iristen da.

- Informazio estrategiak: elkarrizketaren harian, irakasleak gertaerak kontatzen dizkie ikasleei, datuak ematen eta kontrastatzen ditu, konparatu, laburtu, kontatu, argudiatu...egiten du, eta hori egitean, pentsatzeko eta berbaldia eratzeko ereduak ematen dizkie.
- Sostengu estrategiak: ikaslearen parte hartzea bermatzera eta bultzazera bideratuak, bere pentsamendua zabal dezan. Irakasleak erne entzunez gauzatzen ditu, baiezko keinuez, onarpen-adierazpenez edo ikasleek esandakoa berresanez ( “A, bai, ikusten dut”, Zer diozu?)

Estrategia hauen helburua bikoitza da: haurren pentsamendua sustatzea, eta hizkuntzaren erabilera garatzea. Haurrek hitz egin dezaten eta bere berbaldi-gaitasunak garatu ditzaten. Normalean hurrei interesatzen zaizkien gauzez hitz egiteko aukera duten testuinguruetan egiten dira.

Honetaz gain, eskolan korro-tertua lantzen dutela esan zidan. Jarduera honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, egunean zehar momentu bat izatea non denon aurpegiak ikusi egiten dituzten, elkarrekin egoteko unea, gelan dituzten arazoez eta gaiak konpartitzeko unea, lagunak egiteko unea, euren bizitzaz, kezka eta arazoen gehiago jakiteko aukera emango dien unea, hau da, gelako *historia* eraikitzen eta konpartitzen lagunduko dien unea.

Eta bestetik, lan honekin lotura estuagoa duena, alderdi linguistikotik ahozko hizkuntza garatzea. Hala nola: ideia, sentimendu, gogo...ezberdinak ahoz azaltzea, eta besteekin interakzioa izatea errespetuz eta lankidetzan, ahozko testuak ekoiztea ikasleen harremanak indartzeko, ahozko azalpenak ematen ikastea koherentziarekin eta ondo egituratuta, egoerari dagokion hizkuntza egokia erabiltzea, forma ezberdinak ahozko eta idatzizko testuetan identifikatu eta analizatzea, teknika mnemoteknikoak erabiltzeko bidea ematea, besteekiko interakzioak dauden oinarrizko arauak erabiltzea (hitz egiteko txandak, gai berdinarekin jarraitu, besteen interbentzioen aurrean adi egon, besteen ekarpenak errespetatu, hitz egiten duenari aurpegira begiratu...), ea. Ikasleen adinaren arabera helburu batzuk beste batzuk baino indar handiagoa izaten dute.

Esan bezala nire proposamena debatea lantzea da eta hori da hurrengo orrialdeetan zehar landuko dudana.



### 3. EREMU KURRIKULARRA

#### 3.1 MARKO TEORIKOA

##### 3.1.1. AHOZKOTASUNA ETA HIZKUNTZA KALITATEA

Ahozkotasuna lantzeak hizkuntz erabilerarekin zerikusi zuzena duten hainbat aspektu aintzat hartzea, lantzea edo garatzea dakar ezinbestean. Ahozkotasuna lantzea hizkuntzaren erabilera bera sustatzea da, eta, beraz, komunikazioa eta adierazkortasuna lantzea dela esan dezakegu. Hizkuntza erabiliz ikasten da eta erabiliz ontzen da. Erabiltzen ez den hizkuntza, aldiz, galdu egiten da, eta atzerakada honek motibazioan ere eragin negatiboa du.

Esan bezala, ahozkotasunaren gunetik abiatuta, hezkuntzaren alorrean ahozkotasuna lantzea ez da lan makala; askotan, eztabaida egoten da ahozko formala edota lagunartekoa landu behar ote den. Baina gauza ez da bata edo beste landu behar den eztabaidatzea, baizik eta zer, noiz eta nola egin behar den. Eta hari honekin lotura estua du dihardugun gaiak, hizkuntzaren kalitateak, alegia.

Zaila da definitzea “hizkuntzaren kalitatea” zer den, zaila da “zuzena, jatorra eta egokia” bezalako parametroak zehaztea. Hau definitzeko, 2004an Kike Amonarrizek, Andoni Egañak eta Joxerra Garziak, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordearen eskariz, ”Hizkuntza kalitatea”ri buruzko idatzitako txostena hartu dut oinarritzat.

Hizkuntzaren kalitatea definitzerakoan hiru maila desberdintzen dituzte egile hauek:

1. **Euskara zuzena:** Euskal gramatikaren araberako euskara da, hau da, Euskaltzaindiaren arauen araberakoa, arau horiek aplikagarriak diren egoera komunikatiboetan. Hizkuntzaren arlo guztiak hartzen ditu kontuan: lexikoa, ortografia, joskera, ahoskera, etab. Zuzentasuna, beraz, zurruna da, zehatza, oinarritzakoa, ororentzakoa eta derrigorrezkoa, nahitaez.

2. **Euskara jatorra:** Euskararen izaeraren edo usadioaren araberakoa da euskara jatorra. “Entrenatzailea zirkunstantzia aurpegiarekin atera zen aldageletatik” euskara zuzena izan liteke akaso, baina ez da jatorra. “Entrenadorie halamoduzko aurpegixaz urten zeban bestuarixotik”, aldiz, jatorra da, nazio mailako egoera formaletarako zuzena ez izan arren. Ideala, esan dugun moduan, zuzena eta jatorra izatea litzateke.
  
3. **Euskara egokia:** Egoeraren arabera bere xederako egokia dena da euskara egokia, eta, Mitxelena bezala, hizkuntzaren xedea eragitea da batez ere. Egokitasun kontzeptu honetan txertatzen dugu, beraz, eraginkortasunaren alderdia, nahiz jakin batzuek guk “jator” esaten diogunari esaten diotela “egoki”. nahi eta behar denaren araberakoa da euskara egokia; helburuari dagokiona.

Izan ere, egoera komunikatibo bakoitzak bere izaera eta egokitasun propioa behar du, eta du. Egoera jakin baterako ezinago egokia den hizkera guztiz desegokia izan liteke –eta izaten da– beste baterako. Hain zuzen, hori eta ez besterik da hiztun –eta hizlari– egokiaren gaitasun bereizgarria: aldi aldi egoeran hartarakoxe egokia den hizkera erabiltzen jakin eta asmatzea. “Atsegin zatzaizkit” oso zuzena da, baina zuzenaren zuzenaz guztiz desegokia da, goizeko ordu bietan ligatu nahi duen gaztearentzat.

Asko ez ezik askotarikoak dira egokitasunean daragiten faktoreak, eta hizkuntzaz kanpokoak dira, gainera, den-denak. Hona hemen faktoreotako garrantzitsuenak: xedea, xede taldea, mezu bideak eta hizlariaren hizkuntz gaitasuna.

Orain arteko ahaleginetan, oro har, zuzentasunari eman izan zaio lehentasuna, eta hurrena jatortasunari. Horrek, besteak beste, eredu estandarretik urrutiko hizkera darabilten hiztun egoki askoak konplexuz betetzeko balio izan du. Gaur egun, egoera hau nozitzen dutenak, ordea, ez dira eredu estandarretik urrun dauden euskalkietan mintzo diren adin batetik gorako euskaldun zaharrak bakarrik. Hiztun egoki horiek herri txiki euskaldunetatik euskara berreskuratu duten hiri ertainetako ikastola edo ikastetxeetara joandako ikasleak direnean ere, egoera berbera errepikatzen da. Askotan, euskara jatorra bera baita hirietako gazte estandarretik urrun geratu dena.

### 3.1.2. DEBATEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Debatea ahozko hizkuntza formalaren alorrean, argudiozko generoen artean garrantzitsuenetarikoa da, bai hizkuntzaren azterketan, bai irakaskuntzaren alor desberdinetan.

Debate bat aztertzerakoan ezaugarri ugari daude aztergai. Atal honetan honako hauek aztertuko ditut: ezaugarri orokorrak, partehartzaileak, ezaugarri testualak (koherentzia, kohesioa eta egokitasuna), eztabaida gaia eta azkenik, ezaugarri linguistikoak.

Hasteko, esan beharra dago ez dela erraza debatearen definizio bakar eta oso bat ematea, debatearen aspektu guztiak kontuan hartuko eta bilduko dituen. Hainbat autorek euren definizioetan esandakoa kontuan harturik, debatea funtsean, moderatzaile batek bideraturiko ahozko jarduna da, gai baten inguruan ikuspuntu desberdinak azaleratzen dituen.

Hona hemen eztabaidaren definizio bat:

*(...)Consideraremos el debate como una práctica verbal, pública y formal. Al decir formal queremos decir que tiene una forma específica, que es una práctica discursiva "localizable" e identificable entre las distintas prácticas verbales (...). El debate descansa sobre el diálogo como forma de interlocución. Aceptamos la siguiente descripción de la interlocución: el destinatario está obligado a responder, o al menos a reaccionar, al discurso que se le dirige (...). Se tiene en cuenta el modo de comportamiento frente al discurso del otro.*

*(Larringan, LM. 2001:1etik jasoa)*

Askorentzat debatea eta tertulia praktikan berdinak dira; Larringan (2001), ordea, ahozko hizkuntzaren alorrean kokatzen diren bi genero horiek bereiztearen garrantziaz mintzo da. Autore honek aipatzen du debateak eta tertuliak diskurtso forma eta gizarteratze modelo desberdinetara eramaten gaituztela eta beraz, horietan abian jartzen diren estrategia eta metodo diskurtsiboak ere bestelakoak izango direla.

Tertulia eta debatea bereizten dituen ezaugarriak azpimarragarriena hau da: tertulian partaideen ideien arteko desberdintasuna urria da, hau da, ikuspuntuak oro har hurbilekoak dira eta moderatzaileak parte hartzen du; are gehiago askotan horixe da eskatzen zaiona. Debatean, aldiz, partaideen arteko ideiak guztiz ezberdinak dira, eta moderatzaileak ezin du parte hartu, baizik eta bere funtzioa bete soilik.

Orobat, komunikabideetan sarritan egiten diren debate itxurako horiek, ez dute asko laguntzen guk praktikan jarri nahi dugun debatearen irudia argitzen. Horrelako saioen helburua norberaren ikuspuntua inposatzea da edozein bitarteko erabiliz (iruzurrak, irainak, oihuak, aipu faltsuak ...). Are gehiago, debatea borroka balitz moduan irudikatzen da.

Laburbilduz, eta hainbat autorek, Larringanek eta Idiazabalek (2001a) kasu, debatearen inguruan esaten dutenaren arabera, honako ezaugarriek deskribatzen dute testu genero mota hau:

1. Jarduera publikoa da eta ahozko komunikazio zuzena. Norbaitek antolatua izan ohi da.
2. Parte hartzaileak aurrez hautatzen dira eta "adituaren rola" betetzeko deitzen zaie, hainbat arlotako ordezkariak dira, beraz, nolabaiteko gaitasuna eta legitimitatea erakutsi behar dute. Partaide kopurua mugatua da eta bi baino gehiago izan behar dira.
3. Partaideak hitz egiteko deitu dira; ondorioz, ezin dira isilik egon.
4. Solasaldi egitura du, hitz-txanda bidez gauzatua, horien iraupena luzeagoa edo laburragoa izan daiteke.
5. Debatea jardun gidatua da moderatzaile bat dagoelako. Bera da arduradun orokorra, bultzatzailea eta erakundearekiko erantzulea. Ez du bere iritzia ematen, horrek desberdintzen du, besteak beste, tertulietatik.
6. Debatearen gaia aldeztu dago finkatua eta moderatzaileak badu gai zerrenda bat.
7. Mintzajardunak beti dira argudiozkoak, iritzi, ikuspuntu eta aburu bat baino gehiago oposatzen edo kontrajartzen dira.
8. Auzi-arazoak modu adostuan aztertuz eta analizatuz argitu ahal direla pentsatzen da, iritzia ematea ez da nahikoa, hura justifikatu eta sinesgarri egin behar da.

9. Diskurtsoko objektuak, iritziak eta gaia bera, beti ere negoziatu egin behar dira. Debatekideak gaiaren garapena bere gain hartu behar du.

10. Debateko solaskideak ezin du besteeikiko aske jokatu, solaskideen iritziak eta ikuspuntuak kontuan hartu beharko baititu. Debateko parte hartzailea eranstera, integratzera, gehitzera dago behartua.

11. Denbora muga zehatzak ditu.

12. Nolabaiteko makro-egitura du: hasiera - garapen aldia – amaiera

Debateetan bestearen hitza kontuan hartzea ezinbestekoa da, debatea bera modu egokian aurrera eraman ahal izateko. Debate batean hiztun batek ekarpenak egiten dituenean (aldeko edota kontrako argudioak) gainontzeko hiztunekin batera aurrera egitea da helburua, egia handiago bat ezagutzea, auziei elkarrekin konponbide bat ematea.

Haatik, elkarrekin aurrera egingo bada hiztunak bere ikuspuntua zilegi dela erakutsi beharko du, bere egia onargarria dela eta solaskideek onar dezaketela eta hortik abiatuta aurrera egin daitekeela. Hiztunak solaskidea bere egiaz konbentzitu nahi du eta hainbat baliabide erabiliko ditu: besteak entzuteko, iritziak justifikatzeko, kontrajartzeko, modalizatzeko, edota besteen hitzak berrartu eta birformulatzeko (azkeneko atalean aipatuko ditut zehazki).

Garro eta Idiazabalen (2005:45) artikuluan esaten den moduan, debatean parte hartzeak norberaren jarrera eta iritzia nabarmentzea bila dezake baina hori egin ahal izateko ezinbestekoa da bestearena kontuan hartzea. Eta bestea esaten denean, ez da soilik debatekide edo solaskidea, baizik eta hartzailea edo entzulea ere bada; are gehiago, debateko solaskideak beste edozein ahots ekar dezake berearen suspergarri, gehigarri edo bestearen ahulgarri.

Honetaz gain, partaideen arteko talde-lana nahitaezkoa da debateetan, hots, beste hiztunen hitzak edota ahotsak norbere eginez eremu komunak lortu eta aurrerapausoak ematea. Beraz, garrantzitsua da norberaren ekarpenetan gainontzeko partaideen diskurtsoen zantzuak agertzea, horrek aditu, barneratu, onetsi edota onesten ez denaren berri emango baitu.

Esan bezala, debatean bestearen hitza kontuan hartzeak bere garrantzia dauka, eta ideia hau hiru aspektu hauetan oinarritzen da:

### **Elkarreragina**

Aipatu bezala, debate batean parte hartzen dutenek elkarri eragiten diote. Horrela, euren ekarpenak egiten dituzten heinean, bakoitzaren jarrerak, iritziak, usteak... besteenean dute eragina; eta besteek, bakoitzarenean. Horregatik, debateetan ez da harrizkoa bakoitzaren iritzia besteenearekin osatzea edota aldatzea.

### **Interakzioa**

Jarrera aktiboa izan behar dute partehartzaileek. Eztabaidan parte hartzen ari direnek besteek esandakoari erantzuteko beharra sentitzen dute; edo, gutxienez, nolabaiteko erreakzioa izaten dute.

Aurrekoan ez bezala, kasu honetan, ez da aurreikusten norbere iritziaren garapen edota eboluziorik; bestearen edo besteen iritziaren aurreko erantzuna soilik.

### **Negoiazioa**

Elkarreraginarekin hertsiki lotzen den kontzeptua da. Bai interakzioa, bai negoiazioa argudiatzearen elementuak ditugu.

Negoiazioak interakzioan gerta litezkeen zenbait ekintzarekin du zerikusia:

- Bestearen iritzia ondo ulertu den baieztatzea.
- Gainontzeko hiztunak norberaren iritzia ondo ulertu duen ziurtatzea.
- Adostasuna adieraztea.
- Esan nahi dena ondo planteatzea gainontzeko partaideek hobeto ulertu dezaten.

### 3.1.3 EZTABAIDA GAIA

Debatean gaia aurrez jakin ohi dute bertan parte hartuko dutenek, izenburuan bertan edota moderatzaileak debatearen hasieran jakitera ematen du. Baina hasieran emandako gaia interakzioan mardultzen da, solaskide guztien artean osatuz, zehaztuz edota aldatuz joan ohi da. Eztabaidako parte hartzaileen nolabaiteko desadostasuna egon behar da, gaiarekiko euren iritzia ez da ez antzekoegia ez desberdinegia izan behar.

Elkarrizketak funtzionatuko badu partehartzaile bakoitzak bere solaskideari lekua utzi beharko dio, bestela bi bakarrizketa paralelo izateko arriskua baitago.

Esan bezala, gaiaren kudeaketak gainontzeko ahozko hizkuntza formaleko generoetatik ezberdintzen du debatea. Hala, Larringanek (2001) debatea tertuliatik desberdintzen duen beste aspektu garrantzitsuenetariko bat eztabaidako gaia dela esaten digu.

Debatean gaiak aurrez aurkezten dira. Debatean parte hartuko duten hiztunek debateko gaia aurrez ezagutzen dute, aldez aurretik prestatuta ekartzen dute. Entzuleriak ere aurrez ezagutu ohi du debateko gaia, dela saioaren aurkezpenean gaiaren berri ematen delako, dela aurrez iragarria dagoelako. Bestalde, debate baten moderatzaileak ia inoiz ez du eztabaidarako gaiaren bueltan hitzik esaten, tertulian, ordea, gaiak ekintzaren momentuan bertan aurkezten dira eta moderatzaileak ekarpenak eta iritziak ematen ditu.

Garrok, Idiazabalek eta Larringanek (2007) egindako lanean planteatzen duten sailkapenaren arabera bost baliabide diskurtsibotan banatzen dute debateko gaiaren eraikuntza:

- Gaiaren sarrera edo hasiera: Gaia aurkeztea da; eztabaidaren abiapuntua.
- Gaia mantentzea: Gaiarekiko argudioak errepikatzea, ekarpen berririk egin gabe.
- Gaia garatzea: Gaia zabaltze aldera ekarpenak eta birformulazio berriak egitea da.
- Gaia desbideratzea: Gai baten barnean itzulunguru moduko saio bat egitea da, gaia aldatzea baino mugatuagoa, baina gaia garatzea baino zabalagoa dena.

-Gaia aldatzea: Lantzen ari den gaiaren baitan beste gai bat proposatzea da.

### 3.1.4 EGITURA

Debateak, testu-moldea den neurrian, badu berea den nolabaiteko makro-egitura bat, hiru fasetan bana daitekeena: hasiera – garapen aldia – bukaera. Canals, R. (2015:27), *El pensamiento critico en el aula* artikulutik ateratakoa.

**1. Hasiera:** Debatearen hasierako gidaritzza moderatzailearen esku geratzen da. Moderatzaileak instituzioaren izenean jarduten du eta partaideak zein saioa aurkezten eta agurtzen ditu, baita debateko eztabaidarako gai nagusia aurkezten ere. Gidariak, gainera, gai nagusiarekiko iritzi orokorra eskatu ahal dio partaideari. Mintzatzeko lehendabiziko txandan, argudiozko diskurtsoak ongi egituratua behar du izan.

**2. Garapena:** Eztabaidaren garapen aldian hasiera – garapena – bukaera antzeko egiturak errepikatu egiten dira. Hala, azpigai berri bat aurkezten da edota aurrez landutakoren bat berreskuratzen da, norberaren ikuspuntua justifikatu eta negoziatzen da (adostasuna/desadostasuna adieraziz, argudioak emanez...), eta azkenik, gaia bukatutzat ematen da esplizituki (moderatzaileak edo partaideren batek hala adierazten duelako) edota inplizituki, beste gai baten eztabaida hasten delako. Eta modu honetan, zikloa behin eta berriro errepikatzen da, gai nagusiaren eztabaida bukatutzat ematen den arte. Gehienetan azpi-atal horiei hasiera ematea moderatzailearen lana izaten da, baina parte-hartzaileek ere bete dezakete funtzio hori, adituen kasuan batez ere. Esan bezala, eztabaidan zehar, garrantzi handikoa izaten da elkarreragina edota errefusa, solaskideari entzutea eskatzen duen sekuentzia dena, bai eta diskurtsoaren errepikapena, aurkako argudioak azaltzeari ekin aurretik.

**3. Bukaera:** Debatearen bukaera ere moderatzailearen esku geratzen da. Batzuetan saioan esandakoak laburbiltzen eta ondorio nagusiak eskaintzen ditu, baita partaideak eta saioa agurtzen ere.



### 3.1.5. PARTEHARTZAILEAK

Hiru dira debatean parte hartzen duten kideak:

**Interlokutorea:** hizketakidea edo elkarrizketakidea ere deitua, berarekin eraiki behar baita diskurtsoa, berarekin eraman aurrera gaia. Baina, bestalde, kanpoko bestea (gure kontra dagoena) da benetan debatearen helburua. Interlokutoreak planteatzen den gaiaren kontrako edota aldeko postura izan ahal du.

**Moderatzailea:** debateetan garrantzi handia du moderatzaileak, debatearen bereizgarri da. Hiztunen dinamika erraztu eta ezaguera eraikitzeko oso inportantea da moderatzailearen lana: hiztun bakoitzaren jarrera edo ikuspuntua argitzen laguntzeko, hitz txandak errespetatu eta ongi bideratzeko, besteari entzutea baliagarri egiteko, hiztun guztien iritziak ulertarazteko, besteen ekarpenak edota iritziak norberarenean gehitu eta norberarenari aurre egin edo beste norbaitenarekin kontra-argudioekin kontrajartzeko. Esan beharra dago tertulian ez bezala, debateetan moderatzaileak berez ezin duela planteatzen diren gaien inguruko ekarpenik egin, ezin du iritzirik eman, baizik eta bereziki bereak diren eta partaideengandik desberdintzen duten zereginak egin behar dituela.

**Entzuleria:** Partehartzaileek publikoa kontuan hartzen dute euren ekarpenetan: talde baten izenean hitz eginez, entzuleriari erreferentzia zuzena eginez, aipu sozialak erabiliz, solaskideei erreferentzia egiteko hirugarren pertsona erabiliz eta abar eta abar.

A Unzuek (2009:15) dioskunaren arabera, debatakide guztiek gaiak informatu behar dira nork bere ikuspuntua defendatu ahal izateko. Prozesu horretan premiazkoa da informazio iturri desberdinetan (egunkarietan, sarean, artikuluetan ...) sarbidea izatea, alde batetik norberaren ideiak erraztasunez defendatu ahal izateko eta gainerako hiztunen jarrerei aurre egin eta ukatzeko. Era berean, aztertu behar da besteen diskurtsoa nola testualizatzen den eta norberaren diskurtsoan argudio gisa nola sartzen den.

Beraz, debateko partaideek hainbat estrategia erabil ditzakete euren diskurtsoa eraikitzeko, gaiarekiko ikuspuntua azaltzetik hasi eta beste partaideek esandakoa kontuan hartuz eta integratuz norberaren ikuspuntua defendatzeraino.

### 3.1.6. EZAUGARRI TESTUALAK

Unzueren liburuan (2009: 16) oinarrituz, hiru dira debatearen ezaugarri testualak:

**Egokitasuna:** Testua bera (ahozkoa zein idatzizkoa) eta komunikazio-egoera kontuan hartzen duen testu-ezaugarri bat da, izaera pragmatikoa duena.

Testuaren egitura eta testuingurua aztertzen ditu: igorle-hartzaileen arteko jokoa, bien kokapena testuaren barruan, komunikazioa, denbora eta burutapena. Ildo horretan, hainbat xehetasun aipatu behar dira, besteak beste, modalizazioa, elkarreragina eta hizkuntza aldaera. Debatean komunikazio polifoniko baten eskemaren atzean gaude, ahots bereziki kualifikatua duena, moderatzailearena, hain justu.

Testu-polifonia ez da moderatzailearen eta debatean parte hartzen dutenen arteko jokoa bukatzen. Esan bezala, entzuleriak zeresan handia du genero honetan. Debatearen uneren batean ikusleek parte hartu ahal izatea gorabehera, igorleen aniztasuna ausarki hazten da agintaritzaren argudioa maiz erabiltzeak dakarren testuartekotasuna kontuan hartzen bada. Alde horretatik, interesgarria da kanpoko ahotsak eranstea ez ezik, baita testualki tratatzeko modua ere. Prozesu honetan txertatzen dira berez jendetasunezko eta trataerako formulak, hau da, ikasleek egoera arruntetan erabiltzen ez dituztenak. Beraz, hizkuntza aldaerak bere garrantzia dauka; ikasleak ahozko diskurtso formalera ohitu behar dira, eguneroko hizkera alde batera utzirik.

**Koherentzia:** semantikarekin (lexikoa) du lotura hertsia ezaugarri honek, hitzen esanahia eratzera zuzendua. Gaiaz arduratzen da, informazioa hautatzeaz eta prozesatzeaz, hartzen duen testu-egituraz eta partekaturiko informazioaren eta informazio berriaren arteko jokoaz.

Arestian esan bezala, debatearen hasieran, moderatzaileak gaia zehazki plazaratuko die, bai eta nola igaroko den ere. Horretarako, lagungarri izan daiteke gaiaren mugak galdera moduan zehaztea. Moderatzaileak, orobat, gaiak izan ditzakeen adar desberdinen berri ere emango du eta arduratuko da debatearen bilakaera behar den ordenaz egin dadin. Partaideei, berriz, elkarreragin eta lankidetzaren printzipioak

planteatutako gaira mugatzea eskatzen die, alferrikako digresioak saihestea (gai nagusiaren ildoak galtzea) eta ordena errespetatzea debatearen atal guztietan zehar.

**Kohesioa:** Sintaxiarekin du lotura estua ezaugarri honek, diskurtsoa egoki osatzeko laguntzen duten unitateen egituraketa bermatzen duena. Bereziki, erreferentzia eta loturako mekanismoak nabarmentzen dira. Erreferentziatzat ulertzen da testuaren bi elementuren arteko identitate edo zentzuko loturak ezartzea. Prozesu hori elementu gramatikal edo lexiko-semantikoetatik abiatuta gauzatzen da.

### 3.1.7. EZAUGARRI LINGUISTIKOAK

Debateko baliabide diskurtsibo eta linguistikoetara etorriz, gogoratu behar da debatea argumentazioaren eta pertsuasioaren dimentsioetan oinarritzen dela, eta horrek eskatzen du debatean parte hartzen duten kideek hainbat estrategia diskurtsibo erabiltzea: gaiarekiko posizio-hartzea, justifikatzea, kontzesioak egitea, errefusatzea, negoziatzea, modalizatzea ...

Unzuek (2009) bere liburuan esaten digunaren harira, debatea ahozko genero formalaren denez, ikasleak dezente zaila den ekintza bati aurre egin behar dio: alde batetik, hainbat xehetasun zaindu behar ditu, adibidez, besteekiko trataera eta aldaera lexikoak eta gramatikalak; eta bestetik, ezin du esaten ari dena esan ahala berrikusi, ahozko testua baita, *bat-batean* sortzen dena, aldeztu aurretik presta badaiteke ere. Garrantzi handikoa da, beraz, aldeztu aurretik ikasleak lotura-mekanismoak erabiltzen trebatzea.

Orain artekoa zehaztuz, Cuencaren (1995) artikuluan eta [www.santurtzieus.com](http://www.santurtzieus.com) web gunean oinarrituz, ahozko hizkuntzarekin eta argumentazioarekin lotutako zenbait funtzio jakin burutzeko honako baliabide linguistiko hauek erabiltzen dira:

#### **Iritzia emateko:**

- "Nik uste dut... -la"
- "Iruditzen zait... -la"
- "Esango nuke ...-la"
- "Nire ustez"
- "-t(z)earen alde/kontra nago"
- "Eta zergatik ez duzu ...-tzen"
- "Oraingoan ... bazenu"

#### **Desadostasuna adierazteko:**

- "Ez nago konforme / ados"
- "Ez zait iruditzen"
- "Ez dut uste horrela denik"
- "Ez nator bat zurekin"

### **Gaitzespena adierazteko:**

- "Horrela ezin da ....-rik egin"
- "Ez da ... rik egiterik"/"Horrela egingo duenik ez dago."
- "Ezin dute gehiago horrekin."
- "... eraman ezinezkoa zait"

### **Gomendatzeko**

- "Zergatik ez duzu ... -tzen"?
- "Burruratu zaizu ... -tzea"?
- "Hobe duzu/zenuke ... -tzea"
- "Nik zuk bezala/legez ... egingo nuke"

Aurreko funtzioak betetzeko testu antolatzaileak:

### **Arrazoiak gehitzeko:**

gainera, baita ... ere, are gehiago, ez hori bakarrik, batetik... bestetik..., -(e) nez..., -lako

### **Arrazoiak kontrajartzeko**

baina, hala ere, edozein modutan, dena den, nahiz eta, arren...

### **Konklusiorako**

beraz, honela, ondorio gisa, laburbilduz, horregatik, , hau guztia dela eta, arrazoi hauengatik...

Bestelako funtzio osagarriak

### **Informazioa jaso dela adierazteko**

"Ondo", "Bai", "Ja", "Ea, ikus dezagun"

### **Funtzio metadiskurtsiboa**

Hau da, burutzen ari den edo burutu nahi den edo burutu den eginkizunarekin berarekin lotuak; argudiatze-eginkizunarekin lotuak, alegia

- "X-ek esandakoari erantzungo diot"; "Ez moztu, mesedez", "Barkatu, baina nire txanda da", "Askotan errepikatu dut", "Ez didazu ondo ulertu", "Nahiko nuke nik esandakoari norbaitek erantzutea", "X-ek esandakoa laburtzen badut..."...

### **Erregulaziozkoak**

- "Ez da hala?", "Entzudazu", "Begira zer diotsudan", "Jarrai dezagun"...

### **Intentsitatea modulatzeko dutenak**

- "Asko, oso..." jakina", "horixe baietz"...

## **NEGOZIAZIOZKO ESTRATEGIAK**

### **Zerbait lortzeko edo konpentsatzeko estrategiak**

- Hitz jakin bat aurkitzen ez denean, bere definizioa eman: "Zera, erreklamazioa egiteko aurkezten duzun eskari hori..."
- Atzeritartzea: bigarren hizkuntzaren ahoskerarekin eman ama hizkuntzako hitz bat: "konklusioa", "erregulazioa"...
- Atzeratzeko edo denbora irabazteko estrategiak:
- Betegarriak, zalantzazko trikimailu eta taktikak: "hara", "egia esan", "zera esan nahi dut"...
- Norberak edo besteak esandakoa errepikatzea

### **Birformulazio estrategiak**

- Norberak esandakoa konpondu: "Esan nahi dut..."
- Norberak esandakoa beste modu batera esan.

### **Elkarreragina estrategiak**

- Eskerak: errepikatze eskatzea (Esango zenuke berriro, mesedez? Zer esan duzu?, Nola...?); argibideak eskatzea (Zer esan nahi (izan) duzu horrekin? Ez dizut ondo ulertu.); baieztatze eskatzea (Hau esan nahi izan duzu? Ondo ulertu dut?...); ez ulertzearen adierazpenak (hitzezkoak eta ez-hitzezkoak).
- Erantzun posibleak: Berriz esatea, beste era batera esatea, azalpen luzeagoa ematea, murriztea, baieztatzea, konpontzea...; begiratzea...

## **Elementu paraberbalak**

Debatearen bilakaeran hitzen bidezko komunikazioa osatzen duten bitarteko paraberbalek eragin nabaria dute debatean; keinuaren eta hitzaren artean daudenak dira: begiradak, keinuak, pertsonen arteko distantziak, ahotsaren tonua... Horregatik, beharrezkoa da kode paraberbalak lantzea, ikasleei horien eraginaz ohartarazi eta asimilazioa bultzatzeko.

## 3.2 PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: DEBATEA

### 3.2.1 SARRERA

Ahozko hizkuntzak garrantzi handia du ikas-irakaskuntza prozesuan, komunikazioa eta elkarreragina dira azken batean ikas-irakaskuntza prozesuaren giltza edota pilare. Ahozkotasuna lantzea hizkuntzaren erabilera bera sustatzea da eta, era berean, komunikazioa eta adierazkortasuna lantzea dela ezan dezakegu.

Sekuentzia didaktiko honetan genero bezala debatea landuko da, ikasleak iritzia ematera trebatuz. Iritzia eman, baina ez edozein modutan, noski. Arlo akademikotik hizkuntzaren abstrakzio eta konplexutasunak kontuan hartuz, hizkuntzaren egitura ezagutu eta egoera formal batean, ikasle bakoitza bere diskurtsoa egiteko gai izan behar da, norberaren abileziak eta ikasgelan ikasitako edukiak kontuan hartuz.

### 3.2.2 HELBURU NAGUSIAK:

- Ahozko diskurtso zuzen, egoki eta koherentea sortzea
- Ideia nagusiak eta osagarriak desberdintzea
- Modu kritikoan hausnartzea
- Besteen hitza kontuan hartuz, norberaren iritzia berreraikitzea



3.2.3 EDUKIAK:

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hizkuntza formala eta ez formala</li> <li>➤ Debatea generoa</li> <li>➤ Argudio motak</li> <li>➤ Eztabaidaren asmoa</li> <li>➤ Argudiatzea/kontraargudiatzea</li> <li>➤ Debatearen ezaugarri linguistikoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Debatearen atalak bereiztea</li> <li>➤ Diskurtso sinpleen plangintza eta ekoizpena</li> <li>➤ Jarraibide ezberdinak erabiliz, ahozkoa moldatzea</li> <li>➤ Lehen eta bigarren mailako ideiak bereiztea</li> <li>➤ Egindako jarduerak berrikustea</li> <li>➤ Ondorioak ateratzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Errespetuz eta zuzen jardutea</li> <li>➤ Norberaren iritziak gogotsu plazaratzea</li> <li>Eztabaida akordiora iristeko bide moduan hartzea.</li> <li>➤ Eztabaidaren garrantzi soziala aintzat hartzea</li> </ul>

### 3.2.4 PROZEDURA SAIOZ SAIO

#### 1. Saioa: Testuinguratzea

Hausnarketa egingo dute ikasleek. Zer da guretzat eztabaidatzea? Modu egokian eztabaidatzea, ahozko jardunean egoera formal batean aritzea ez da guk uste bezain erraza, ez horixe!

Eztabaida baten bideo<sup>1</sup> bat ikusi eta honako galdera sorta hau erantzun beharko dute bakarka:

#### IKASLEAREN FITXA:

- Zenbat parte-hartzaile daude?
- Adierazi nor den moderatzailea
- Zein da eztabaida gaia?
- Zeintzuk dira debatearen atalak?
- Elkarreragina nabaria da? Txandak errespetatu, arrazoitu, gainontzekoen iritzia errespetatu...
- Zer nolako hizkera darabilte partehartzaileek? Hizkera formala? Lagunartekoa? Teknizismoak?

Denon artean komentatuko dugu klasean eta zalantzarik egonez gero, argituko dira. Honetaz gain, adostuko dira hurrengo zortzi-hamar saioetan zeintzuk izango diren eginbeharrak, azkeneko lana izango den debatea egoki egiteko jarraitu beharreko pausuak (gaiaren aukeraketa, moderatzailearen aukeraketa, diskurtsoaren prestaketa, etab.)

Honetaz gain aipatuko dira zeintzuk izango diren ebaluazio irizpideak. Ikasleek barneratutako edukiak eta prozesuaren parte-hartze aktiboa izan duten hausnartuko da,

---

<sup>1</sup> **Bideoaren izena:** *Agustinos Alicante / Liga de debate 17 de Febrero de 2015* in <https://www.youtube.com/watch?v=O-gCqMPdTqc>

bakarka nahiz taldean. Hasierako egoeratik amaierara arte egon den eboluzioa behatzen eta objetiboki emaitzak balioztatzean dago gakoa. Honetarako sekuentzia honen amaieran ebaluazio atala dago, bertan adierazten da zer eta zelan ebaluatuko den, bai irakasleak zelan ebaluatuko dituen ikasleak, bai ikasleek zelan ebaluatuko duten euren burua (autoebaluazioa) eta ikaskideena.

## 2. Saioa : Gaiaren aukeraketa

Eztabaida batean gaia aukeratzeko hainbat alderdi hartu behar dira kontuan: lehenengo eta behin, didaktikoa izan behar da ( ikasleen prestakuntza eta ikaskuntza hobetzeko helburuarekin), bestetik soziala ( gai ezaguna, desafio bat egon behar du), eta azkenik psikologikoa ( ikasleen interesekoa izan behar du, motibazioa pizteko). Funtsezkoa da beraz, gai egoki bat aukeratzea.

Esan bezala, debatean gaia aurrez jakin ohi dute bertan parte hartuko dutenek, izenburuan bertan edota moderatzaileak debatearen hasieran jakitera ematen du. Baina hasieran emandako gaia interakzioan mardultzen da, interlokutore guztien artean osatuz, zehaztuz edota aldatuz joan ohi da. Eztabaidako parte hartzaileen nolabaiteko desadostasuna egon behar da.

Sekuentzia honetan irakasleak bost gai proposatuko ditu eta horietatik bat aukeratu beharko dute ikasleek. Dena den, ikasleren batek iradokizunen bat baldin badu, eta egokia bada aintzat hartuko dugu. Hona hemen bost gaiak:

- a. Mugikorrak gelan.
- b. Ikastetxeetan lehentasunez egin beharreko berrikuntzak eta egokitzapenak.
- c. Piercing-ak eta tatuaiak egiteko, hamazortzi urte ezean, gurasoen baimena behar da.
- d. Ikasturtean zehar azterketa gehiegi egiten dira?
- e. Gazteak lonja izatearen alde edo kontra?

Ikasleek hemendik aurrera, taldean jardungo dute. Oraingoan gaiaren hautaketa arrazoitu beharko dute honako taula hau betez:

Aukeratutako gaia:	
Aukeraketaren arrazoiak:	
Aldeko argudioak:	
Kontrako argudioak:	

Hamabost bat minutuko tarte izango dute taula betetzeko eta jarraian sasi-debate bat sortuko da gelan: hau da, talde bakoitzak aurkeztu beharko du zein izan den aukeratutako gaia, eta aukeraketaren arrazoiak. Saiatu behar da ikasle guztiek parte hartzea.

Honen haritik, eta amaieran egingo den debatearen gaia zehazten joateko asmoz, bozkatze bat egingo da klasean, ikasle bakoitzak pertsonalki bozkatuko du zeintzuk diren berarentzako gairik egokienak puntuka, 5 puntu gairik egokienari eta puntu bat gairik desegokienari. Metodo hau erabilita ia ziurtatu ahal dugu berdinketarik ez egotea.

Arbelean idatziko dira gai guztiak ikasleek emandako puntuazioarekin. Puntuaziorik altuena lortzen duena beraz, izango da aukeratutako gaia. Hemendik aurrera komentatu ahal zaie ikasleei, informazioa jasotzen hasi ahal direla, amaieran egingo den eztabaida prestatzen hasteko.

### 3. Saioa: Taldeen eta moderatzailearen aukeraketa

Saio hau bi zatitan banatuko da; saio erdia moderatzailearen aukeraketari eskainiko zaio eta beste erdia lan-taldeen osatzeari.

Hasteko, moderatzaileak bere garrantzia du debatean, hainbat eginkizun ditu. Ikasleak horren jakinaren gainean egoteko eta aldi berean horretaz hausnartzeko honako ariketa hau proposatzen da.

1. Hona hemen moderatzailearen eginkizunen zerrenda bat. Baztertu itzazu egokiak ez direnak.
  - a. Gaitik aldentzen diren iritziak baztertzea.
  - b. Moderatzaileak planteatzen den gaiaren inguruko ekarpenik egin dezake.
  - c. Debatearen hasieran gaia aurkeztu behar du.
  - d. Ez du zertan hitzunen dinamika erraztu behar.
  - e. Hitz egiteko txandak berdintzea.
  - f. Hitzunen parte-hartzea bultzatzea.
  - g. Irainak, errespetu faltak, ... baztertzea.
  - h. Hitzunen arteko elkarreragina saihestu behar du.
  - i. Debatearen bukaera moderatzailearen esku geratzen da.

Ariketa lau-pabost pertsonetako taldetan egingo dute, elkarri euren iritziak partekatzeko helburuarekin. Hamabost bat minutu izango dute egiteko eta gero denon artean zuzenduko dute irakaslearen laguntzaz.

Esan dugun bezala, saioaren beste erdia taldeen aukeraketari eskainiko zaio. Taldeak irakasleak berak egingo ditu, lau-pabost ikasleko talde heterogeneoak sortzen saiatuko da, ezaugarri ezberdineko ikasleak tartekatuz: jarrera desberdinekoak, ikasketa mailan emaitza desberdinekoak, aho-adierazpen maila ezberdinekoak, izaeraren aldetik ezberdinak ... Ikasle guztien parte hartzea ziurtatu behar da, lehenik, eta, era berean, baita aldibereko elkarrekintza ere.

Arazoak suertatu daitezke ikasleak taldeen aukeraketarekin ados ez egotearekin. Azaldu behar zaie zein den lan talde hauen funtzioa, irizpide batzuk kontuan hartuta eraiki direla eta hemendik eta azkeneko debatea egin arte talde hauetan jarduerak egingo dituztela, eta ez dela salbuespenik egongo.

Behin taldeak eginda, taldekide bakoitzari rol bat egokituko zaio eta horrekin batera eginbeharrekoak zehaztuko zaizkio. Hau da, taldekide bakoitzak ardura bat eduki behar du: beraz, gutxienez lauzpabost rol egongo dira: idazkaria, informazioa biltzeaz arduratuko dena, denbora eta kronograma kontrolatuko dituen... Rolen banaketa ikasleek adostuko dute bakoitzak dagokien taldean.

#### 4. Saioa: Argudiaketa eta egitura

Debatearen prestaketaren funtsezko beste elementu bat argudiaketa da. Egunerokotasunean tai gabe darabiltzate argudioak, bizitzako edozein esparru edota egoeretan: familian, lagunekin, igogailuan, telebistan, klasekideekin, lankideekin, egunkarietan ... Baina debatea lantzean, hizkuntza egoera formal baten aurrean gaude, eta hau lantzeko argudio moten sailkapenaren fitxa bat (Ikus. 1. eranskina) emango diegu ikasleei eta taldeka ariketa bat (Ikus.2.eranskina) egingo dute.

Ariketa honetan bi zeregin dituzte: alde batetik, bi zutabe bereizten dira, eta eskuinaldean dauden argudio mota bakoitza dagokion adibidearekin lotu behar dituzte; bestetik, adierazi behar dute argudio bakoitza argudioa ala falazia edo argudio okerra den.

Zuzentzeko metodologia berdina erabiliko da, denon artean zuzendu eta zalantzarik egonez gero, argituko dira.

Debatearen egitura lantzeko bi ariketa egingo dira: alde batetik, bideo<sup>2</sup> bat ikusi eta atal bakoitza bereiziz ikusten joan eta bestetik, transkribatutako eztabaida baten zatiak aztertuko dira. Bi ariketa hauetan bereizi behar dituzten hiru atal nagusiak hauek dira: Hasiera, garapena eta bukaera. Ariketak egiten hasi baino lehen, zati bakoitzaren azalpenak eman beharko ditu. Ikasleek atalak ondo bereizten jakin behar dute, horregatik komenigarria da atal bakoitzetik ideiarik esanguratsuenak aipatzea, informazio zehatza eta argia ematea.

Lehenengo ariketan, irakasleak izango du bideoa atalka moztearen ardura, atal bakoitzean behar diren azalpen guztiak emanez. Talde osoan lan egingo dute ikasleek.

---

<sup>2</sup> Bideoaren izena: *Final liga de debate Universidad de Zaragoza 2013* in <https://www.youtube.com/watch?v=-sFdueW4fk8>

Bigarren ariketa egiteko eztabaida baten transkripzioa erabiliko da. Lan hau aldez aurretik prestatu beharko du irakasleak, aproposa den debate bateko edozein bideo edo grabazio hartu eta atal bakoitzetik egokia den pasarte bat transkribatu. Banaka jardungo dute ikasleek, atalak bereizi beharko dituzte eta gero denon artean zuzenduko dute irakaslearen laguntzaz.

Irakasleak ziurtatu behar du ikasleek ondo ezagutzen eta bereizten dituztela atalak eta zein ezaugarri dituzten, hau baita gero klasean egingo den debatearen funtsa, mamia.

Saio honetan argudioak landu direnez, adierazi behar zaie ikasleei, eurak kontrako zein aldeko argudioak prestatu behar dituztela azken debaterako, eta eztabaidaren egun berean jakinaraziko zaiela zein postura hartu beharko duten.



## 5. Saioa: Informazioa bildu eta jasotzea

Debatean parte hartuko duten ikasleek debateko gaia aurrez ezagutu eta landu behar dute. Hau egiten ez bada, ikasleek oinarririk gabeko esaldiak errepikatu besterik ez dute egingo, ez dute seriotasunez hartuko eta eztabaida batere interesik gabekoa suerta daiteke.

Beraz, ikasleek debatearen gaiari buruzko informazioa bilatu eta hautatu beharko dute, informazio hori iturri egokietan bilatuz eta gaiarekiko egokitasuna kontuan hartuz. Dokumentatzearena ez da batere lan erraza ez ikasleentzat ezta irakasleentzat ere.

Hasteko, irakasleak prestatutako web-orri interesgarri batzuen zerrenda (Ikus. 3. Eranskina) banatuko du gelan, ikasle bakoitzeko bana. Hau praktikan jartzeko eta aldi berean ikasleek informazio iturri egoki eta interesgarri horiek ezagutzeko asmoz, ordenagailu gelara joan eta web gune horiek kuxkuxeatuko dituzte, baina ez edozein modutan. Bi ariketa planteatuko dira: alde batetik, gaiaren aukeraketaren atalean (bigarren saioan) planteatu diren bost gai horietatik bat aukeratu eta horren inguruko informazioa bildu beharko dute ikasleek.

Bigarren ariketa ezberdina izango da. Ikasleak lehen mailako eta bigarren mailako informazioa hautatzen eta bereizten trebatzea izango da helburua, ideiarik esanguratsuenak jaso beharko dituzte. Oraingoan saretik jasotako berri bat (Ikus. 4.eranskina) aztertuko dute. Lehenengo eta behin, denon artean ahoz gora irakurri (ikasle bakoitzak paragrafo bana) eta hiztegiaren laguntzaz lexikoaren aldetik zalantzak argituko dira. Gero lau zpabosteko taldetan jardungo dute ikasleek: berriko informaziorik interesgarriena hautatu eta jasotzen saiatuko dira. Hogeitabat minutu izango dute hau egiteko, eta jarraian ideiarik garrantzitsuenak arbelean zerrendatuko dira.

## 6. Saioa: Elkarreragina

Debatean parte hartzeak norberaren jarrera eta iritzia nabarmentzea bila dezake, baina hori egin ahal izateko ezinbestekoa da bestearena kontuan hartzea. Eta bestea esaten denean, ez da soilik debatakide edo solaskidea, baizik eta hartzailea edo entzulea ere bada; are gehiago, debatako solaskideak beste edozein ahots ekar dezake berearen suspergarri, gehigarri edo bestearen ahulgarri.

Garrantzitsua da ikasleek norberaren ekarpenetan gainontzeko ikasleen diskurtsoen zantzuak agertzea, horrek aditu, barneratu, onetsi edota onesten ez denaren berri emango baitu.

Honekin lotuta doaz debatearen bilakaeran hitzen bidezko komunikazioa osatzen duten bitarteko paraberbalak: keinuak, begiradak, kodeak ...

Hauek denak lantzeko ikasleek ahozko jarduera bat egingo dute eta elkarreraginarekin lotutako hitzezko esapideen eskema bat (Ikus 5. Eranskina) emango zaie. Denon artean irakurri eta hausnarketa ariketa bat (6. Eranskina) egingo dute. Behin elementu guzti hauek landuta, hasieran egindako taldeetan elkartuko dira ikasleak eta edozein gai aukeratuta jarduerari ekingo diote. Talde bakoitzak aldeko eta kontrako argudio bana prestatu beharko du, eta 15 bat minutuko tartea utziz, sasi debate bat egingo da gelan. Ahozko jarduera horretan, elkarreragina abiapuntu izanda ez-hitzezko elementuak zein hitzezko elementuak erabilita euren diskurtsoa sortu beharko dute.

Irakasleak moderatzailearen funtzioa beteko du, berak gidatuko du debatea, berak neurtuko du denbora ... Garrantzitsua da ikasle guztiek parte hartzea eta debatean barneratuta egotea.

## 7. Saioa: Ezaugarri testualak lantzen

Atal honetan debatean funtsezkoak diren ezaugarri testualak (egokitasuna koherentzia eta kohesioa) landuko ditugu. Horretarako, ikasleei eskema bat emango zaie (Ikus. 7. Eranskina). Denon artean irakurriko dute klasean eta zalantzak sortzen badira, irakasleak argibideak eman beharko ditu.

Hau lantzeko ariketa praktiko bezala (Ikus. 7. Eranskina), banaka jardungo dute ikasleek; eztabaida bideo<sup>3</sup> bat ikusiko dute eta banatutako eskema gidatzen hartuz, ezaugarri testualak betetzen diren aztertuko dugu.

Hona hemen ariketaren azalpena: ezkerrean ezaugarri testual bakoitza ageri da eta eskuinaldean ezaugarri horien berezitasunen zerrenda. Ikaslea bideoa ikusten joan ahala, eskumako zutabeko bereizgarrien bat betetzen dela ikusten badu, orrialdean bertan markatu beharko du, eta betetzen ez bada ere berdin.

Bizpahiru bider ikusiko da bideoa: lehenengo ikustaldian ikasleek behaketa lanak egingo dituzte, bigarrenan ariketa egiten saiatuko dira, eta azkenekoan emaitzak berrikusi, zer edo zer falta izanez gero, osatzeko.

Behin bideoaren ikustaldi guztiak eginda, ariketa zuzentzen hasiko dira ikasleak, irakaslearen laguntzaz. Banan-banan, ikasle bakoitzak bere emaitzak elkarbanatuko ditu, eta beste ikasle batek kontrako iritzirik izan ezean, bere emaitzak helaraziko ditu, eta horrela, ariketa guztia zuzendu arte.

---

<sup>3</sup> Bideoaren izena: *Club de debate Carbalño 1/2* in <https://www.youtube.com/watch?v=cXSrtGhvbSA>

## 8. Saioa: baliabide diskurtsiboak lantzen

Debateko baliabide diskurtsibo eta linguistikoetara etorriz, gogoratu behar da debatea argumentazioaren eta pertsuasioaren dimentsioetan oinarritzen dela, eta horretarako debatean parte hartzen duten ikasleek, hainbat estrategia diskurtsibo ezagutu eta erabiltzen ikasi behar dute: gaiarekiko posizio-hartzea, justifikatzea, kontzesioak egitea, errefusatzea, negoziatzea, modalizatzea ...

Aurreko jardueretan bezala, hau lantzeko ikasleei testu antolatzaileen zerrenda bat (Ikus. 8. eranskina) banatuko zaie. Orain arteko metodologia erabiliko da, hau da, eskema denon artean irakurriko dute, eta irakasleak zalantzak argituko ditu. Hau praktikara eramateko, bi gramatika ariketa (Ikus 9. Eranskina) egingo dituzte ikasleek: batetik, berridazketak kausa-ondorio eta konpletibo-ustezko esaldiekin, eta bestetik esaldiak egin beharko dituzte, debateetan argudiatzeko erabiltzen diren antolatzaile sorta batekin. Ariketa hau egiteko ikasleek banaka jardungo dute, gero denon artean arbelaren laguntzaz zuzentzeko.

Azaldu behar zaie ikasleei gelan lantzen ari den sekuentzia honetako giltza ahozko hizkuntza izan arren, baliabide diskurtsiboak idatziz landu daitezkeela, eta horregatik lagungarriak direla gramatika ariketa hauek, gero ahozko jardunean erabiltzeko.

## 9. Saioa: Azken ekoizpena

Saio honetan praktikan jarriko dira orain arteko eduki guztiak: debatea egingo da. Kontuan hartu behar da ahozko hizkuntzan, diskurtsoa egoki modalizatzea berebizikoa dela; hau da, mezuarekiko lotura eta solaskideenganako inplikazio mailak ondo neurtu behar direla. Berebiziko garrantzia du elkarreraginak, solaskideek mezua elkarrekin eraikitzea, ikuspuntu batetik bestea osatzea eta kanal desberdinen bidez elkarri eragitea.

Hasteko, gela atondu beharko da, moldaketak egin beharko dira (mahaiak eta aukiak mugitu ...). Taldeak aurrez aurre eseriko dira, mahai baten inguruan, eztabaidatzeko orduan distantzia egokia egon dadin (ez oso urrun, ez oso hurbil). Eztabaida denez gero, irakasleak zoriz aukeratuko du zein taldek prestatu behar dituen aldeko argudioak eta zeinek kontrakoak. Debatea hasi baino hogeitatu minutu lehenago emango zaie ikasleei informazio hau guztia.

Debatearen prozeduran hiru atal bereiziko dira: aurkezpena, diskurtsoaren garapena eta amaiera.

Irakasleak debatea aurkeztu eta hizlariari hitza ematen die. Esan bezala, hemendik aurrera moderatzaile lanetan jardungo du eta hitz egiteko txandak banatuko eta denbora neurtuko du. Baina ezin du ahaztu irakasle rola, ikasle berbatienak ixilarazi eta lotsatienak tentatzen saiatu behar da, denen parte hartzea parekatua suertatzen dadin. Tarteka, eztabaidak hartutako bidearen arabera, hizpidea oroitarazi behar die hizlariari, sakabanatzeak saihestu, ideien sintesia egin edota kidetasunak nahiz ezberdintasunak agerian utzi.

Talde bakoitzak tesi nagusia gainerako solaskideei azaltzen die eta talde bakoitzaren argudioak entzun ondoren, debatearen garapena dator, argudioen eta kontra-argudioen tartekatzea. Atal hau, atalik biziena dela esaten da, tentsio egoerak egoten dira. Azkenengoz, talde bakoitzak ateratako ondorio nagusienak aurkeztu ditu eta amaitzeko debatea itxitzat ematen du moderatzaileak, azkenengo tesi bat eginez.

### 3.2.5 EBALUAZIOA:

Ebaluazioa ikasleen ikasketa prozesuaren funtsezko zati da ikaslearen jarraipen egoki bat egiteko: onuragarria da bai ikasleentzat, bai irakasleentzat. Alde batetik, alde aurretik ezarritako helburuak betetzen ari diren edo ez jakiteko erabilgarria da, eta bestetik, ikasleen ahultasunen eta gabezien berri ematen digu: azken batean ebaluazioaren xedea ikas-prozesua hobetzea baita.

Sarritan, ebaluazioa emaitzen neurketara mugatu izan da. Hala, bereizte eta sailkatze funtzioetara mugatzeaz gain, ñabardura ezkorrak erantsi zaizkio. Baina ebaluazio-prozesua haratago doa, eta prozesu didaktiko osoa hartu behar du barnean (ikasleak, irakasleak, sortutako unitate didaktikoak, baliabideak eta abar).

Sekuentzia didaktiko honetan, hiru ataletan egingo da ebaluazioa: lehenengoan debateak iraun bitartean ikasleak banan-banan ebaluatuko dira, kontrol fitxa ( Ikus. 10. Eranskina) baten bidez eta gehienbat elkarreraginarekin lotutako irizpideak hartuko dira kontuan. Bigarrenean, ikasle talde osoa orotara ebaluatuko da, galdera sorta baten (Ikus. 11. Eranskina) bidez eta hainbat irizpide kontuan hartuta besteak beste, denbora eta espazioa, gaitasun estrategikoa, gaitasun diskurtsiboa, gaitasun linguistikoa eta jarrera. Amaitzeko ikasleek autoebaluaketa ( Ikus. 12. Eranskina) egingo dute, bai euren burua ebaluatuz bai taldekideak ebaluatuz. Azken hau oso lagungarria suerta daiteke diskurtsua prestatzeko egindako ahalegina aztertzen laguntzeko.

## 4. EREMU EZ-KURRIKULARRA

### 4.1 HASIERAKO HITZAK

Euskararen normalizazioan aurrerapausoak eman ahal izateko, ezinbestekoa da, arlo akademikoaz gain, ikaslearen gainontzeko bizitza esparruetan ere eragitea, haietan ohiko komunikazio hizkuntza euskara izatea. Ikasleen eguneroko harremanetarako hizkuntza euskara izatea lortu behar da.

Zenbaitetan, gela barruan egiten diren jarduerak ez dute hizkuntzaren erabilera bultzatzen; izan ere, eskolak hizkuntzaren alderdi gramatikalak, sintaktikoak, morfologikoak, etab... ahalik eta ondoen lantzeko planifikatzen dira, hala nola, askotariko aditzak buruz ikasiz (gramatika hutsa), azterketa morfosintaktikoak egiten ikasiz (morfosintaxia) eta gisako ariketak eginez. Horregatik komunikazio jarduerak ardatz ez dituen ikaskuntza prozesu batean murgilduta dauden ikasleek nekez ikasiko dute hizkuntza hori noiz eta zelan erabili; halaber, gure kasuan, euskararekin ez dute lotura esturik izango.

Hizkuntzak, oro har, eta euskara bereziki, gela barruan zein gelatik kanpo gauzak egiteko baliatzen dugun neurrian eskuratzen ditugu. Testuinguru horretan, euskara gustuko dituzten jarduerekin lotzeko urratsak egin behar dira eta ez, jarduera eramanezin edo obligazioekin. Horretarako, gelaz kanpoko jarduerak, ondo planifikatuz gero, eragingarriak izan ahal dira. Haur eta gazteek euskarara hurbiltzeko edota euskara erabiltzeko formula eragingarriena ez da “egizu euskaraz!” esatea, baizik eta adinaren araberako jarduerak antolatu eta naturaltasun osoz euskaraz jardutea, inongo presiorik gabe.

Hainbat dira eremu ez kurrikularrak biltzen dituen lan esparruak: jantokia, autobusa, jolasaldiak, irteerak, txangoak, aisialdia, eskolaz kanpoko ekintzak, etxea, familia. Eta hauek guztiak dira seguruenik lagunarteko hizkera – hizkera kolokiala- eta hizkera afektiboak (sentimenduak, kezak ...) lantzeko esparrurik interesgarrien eta eragingarrienetakoak.

K. Amonarriz, E. Osa eta I. Arrutik (2004) artikuluan esaten duten bezala, eremu ez-kurrikularrak ahozkotasanaren garapenean egin dezakeen ekarpena azpimarratzeko, zortzi urteko haur batek urte osoko esna orduen %15 inguru igarotzen dituela gela barruan hartu beharko genuke kontuan. Bada, gauzak horrela izanik, urte osoko esna orduen zer ehuneko suposatzen du eremu ez-kurrikularrak? Eremu ez-kurrikularrak garrantzia du, ez duen pisuagatik soil-soilik, baita dituen ezaugarri kualitatiboengatik ere, ezen, hizkuntzak gauzak egiteko erabiltzen diren neurrian eskuratzen direnez, komunikazio jarduerak izan behar dute hizkuntz ikasketaren ardatz eta oinarria; bada, eremu ez-kurrikularrean ere irizpide hori da baliatu beharrekoa, are arrazoi handiagoz.

Haur edota gaztetxo baten eguneroko bizitzan eta beraz, hizkuntza errealitatean, eskolako eremu ez-kurrikularrak eremu kurrikularrak adina denbora behintzat suposatzen du.



## 4.2 HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GILTZA

E. Osa I. Elorza eta I. Muñoak (2004) artikuluan hizkuntza eremu sozial desberdinetan komunikaziorako erabiltzen den hautazko zeinuen sistema gisa definitzen dute.

Ikuspegi honen aburuz, hizkuntza komunikazio sistema konplexua izanik, testuinguruan bakarrik ulertu eta deskribatu daiteke; ondorioz, funtzionamenduan eta egoera zehatzetan ezagututa eta erabilia bakarrik ikas daiteke. Hizkuntz formen deskribapen eta ikasketa abstraktua alboratuz, formen esanahia erabileraren bitartez bakarrik eraikitzen dela baieztatzen da. Honenbestez, hizkuntz sistemaren unitate komunikatiboa ez da hitza, ez eta esaldia ere, diskurtsoa baizik, mota askotako testuetan, ahozko nahiz idatzietan gauzatzen dena.

Beraz, esan bezala hizkuntzaren helburua komunikatzea bada, hizkuntzaren komunikazio ahalmenean eta erabilgarritasunean irabazteko, lehenik eta behin, euskal hizkuntz komunitatearen biziraupena eta hazkunde demografiko, geografiko eta funtzionalak bermatu behar dira, hau da, eremu bakoitzean erabiltzen den edo diren hizkera motak ongi definitzea eta planteamendu linguistiko osagarri bat garatzea.

#### 4.3 HIZKUNTZAREN ERABILERA INDARTZEKO ESTRATEGIAK

Euskararena bezalako egoera batean, hizkuntzaren normalizazio prozesuan sakondu nahi badugu eta gure helburua ikasleek hizkuntzaren ezagupen maila egoki bat jaso eta erabil dezaten lortzea bada, ez da nahikoa euskara irakastea; are gutxiago hizkuntzaren berezko transmisioa bermaturik ez dagoenean.

Hona hemen K. Amonarriz, E. Osa eta I. Arrutik (2004) eremu ez kurrikularrean hizkuntzaren erabilera indartzeko aipatzen dituzten estrategiak:

- a. Lehenik eta behin, ikastetxe bakoitzak, bere kasu partikularra duenez, gaiaren lanketa propioa eta koordinatua (ikastetxe barruko eragileekin) egitea eta udalerrri bakoitzak, bere kasu partikularra duenez, gaiaren lanketa propioa eta koordinatua (udalerriko eragileekin) egitea.
- b. Hizkuntzaren ezagupena ez ezik, dakigun hori eskolatik kanpo erabiltzeko dauzkagun aukera urriek euskararekiko atxikimendua ahuldu, gaitasunean atzera egiten erraztu eta erdaren aldeko joera indartzea dakarte. Ingurumari horretan, zer egin dezake eskolak erabilera elikatzeke? Besteak beste, hezkuntza komunitatearen harreman sareetan (ikasleen artean, ikasle eta profesionalen artean, familian, etab.) euskararen erabilera eragozten duten etenak identifikatu, arnasguneak eraiki.
- c. Euskara gustuko dituzten jarduerekin (ez eramanezin edo obligazioarekin) lotzeko urratsak egin behar dira. Horretarako, gelaz kanpoko jarduerak, ondo planifikatuz gero, erabakigarriak dira. Haur eta gazteak euskarara hurbiltzeko edota euskara erabiltzeko formula eragingarriena ez da “egizu euskaraz!” esatea, adinaren arabera halako edo bestelako jarduerak egitean era naturalean euskaraz jardutea dela konturatzea/ohartaraztea baizik; horretarako, espazio horiek euskararentzat irabazteko urratsak egitea da kontua.

- d. Hizkuntzaren normalizazioa lortzeko, planteamendu sistematikoan oinarritzen diren plangintzak dira eragingarriak, ez ekintza bakartuak. Baina, planteamendu sistematikoaz ari garenean eskola mailako planifikazioaz ere ari gara. Borondaterik onenaz egindako eta burututako ekintza bakartuak eta egitasmo solteak egitea gaindituz, xedeak lortzeari begirako planifikazio baterako urratsak egin behar dira. Bada, hariari tiratuz, ikastetxeko hizkuntz normalkuntzarako edo euskararen erabilerarako plangintzan eremu ez-kurrikularra ere lantzea behar beharrezkoa da.
- e. Baina, ikastetxeak bere jendearentzako arnaguneak eratze horretan, kokatuta dagoen gizarte eragileekin askotariko egitasmoak konpartitzea eta gizartean euskararentzat espazioak irabaztea ere badago egon. Halakoetarako, bi irizpide hartu beharko lirateke kontuan: bat, leku bakoitzean euskararen belaunez belauneko transmisio sendoena bermatu dezaketela iruditzen zaizkigun ekimenak eta proposamenak aukeratu eta lehenetsi behar ditugu; bi, ekimenak lehenesteko unean, egingarrienetatik hasi behar dugu; beraz, egitasmo handi eta zenbaitetan egiteko zailak direnak hurrengo baterako utzi behar ditugu. Halaber, ikastetxeko hizkuntz normalkuntzarako edo euskararen erabilera indartu asmo duen plangintza (batez ere, eremu ez-kurrikularra osatzen duten esparruak) udalerriko hizkuntz normalkuntzarako plangintzarekin uztartzea (eta koordinatzea).
- f. Gela barruan ikasketa eragingarri bat bideratzeko, ikasleek egoera komunikatibo erreal bat bizi behar dute; pertsonarteko esparru informalean bereziki, irakasleak bideratu dezakeen hizkuntz erabilera artifiziuala eta antzua gerta baitaiteke. Jabetze maila egokia gerta dadin, berezko esparruetan eragin beharko dugu. Hartara, eskola eta bere ingurune hurbila bilduko dituen eta gelaz kanpoko esparru sozial horietan eragiteko estrategiak koordinatu eta era koherentean diseinatzeko bidea emango duen plangintza egin beharko da.

g. Ikastetxe bakoitzak eremu horretan zer egiten ari den (zuzeneko eskaintza edota beste erakunde batzuen partaidetza tarteko dela), zein hizkuntza baliatuta, nolako bitartekoekin (giza baliabideak, batez ere), halakoetan ari direnek zein prestakuntza duten, etab. bildu egin beharko du. Halaber, burutzen dituen edo burutu gabe arrakasta izan dezaketen jarduerak identifikatu beharko ditu. Datu hauek baliatuta, besteak beste, helburuak definitu, hutsuneak non dituen antzeman, begiraleen prestakuntzarako orientabideak zehaztu, gainerako zerbitzuetako (jantokia, etab.) profesionalen prestakuntza edo aukeraketarako irizpideak finkatu, etab. egin beharko ditu ikastetxeak. Irizpide hauek euskararen erabilera indartu asmo duen urteko plangintzan jaso beharko ditu eta honako atalak gaineratu beharko dizkio: eremua eta etapa –guztietan eragina izango duen plangintza zehazten ahalegindu behar du–, helburuak, ekintzak, azpi-ekintzak, burutzeko behar den denbora, arduradunak, baliabideak eta aurreikusten diren ebaluazio adierazleak.

Ahokotasuna hobetzeko egin behar dena, labur esanda, asko eta ongi hitz egitea da, edo, dauden aukera errealean arabera definitu nahi izanez gero, ahalik eta gehien eta ahalik eta ondoen hitz egitea da. Kantitaterik gabe, ez dago kalitaterik.

Arestian aipatu bezala, betidanik gizarteak hezkuntzari utzi izan dio haur eta gaztetxoek asko eta ongi hitz egiteko ardura, eta aldi berean, hezkuntzak, bere eginkizuna, hainbatetan, eremu kurrikularrera mugatu izan du. Ondorioz, euskara erabiltzeko jardun eremua ikastetxera eta ikastetxearen barruan ikasgelara (B edo D ereduan ikastera) mugatu denean, “asko eta ongi” hitz egitea, “zerbait eta nolabait” hitz egitea bihurtu da, kasu askotan.

R. Gutierrezek (2016) dioen bezala, argi dago haurrek zein gazteek euskara eskolarekin soilik lotzen badute, hizkuntzarekin izango duten harremana oso ahula izango dela. Egunerokoan euskara entzuten eta erabiltzen badute, aldiz, euskaraz ere bizipenak izango dituzte. Azken batean hori da euskara bereganatzeko biderik eraginkorrena.

## 5. ONDORIOAK

Gaur eguneko gizartea aldatze prozesu batean omen dago, ekonomian eta kulturaren bereiziki, eta aldaketa horiek eragin nabarmena dute hezkuntzan. Izan ere, eraldatzen ari den gizarte honetan, funtsezkoa da komunikazio gaitasuna lantzea, ikaskuntza mota dialogikoa, elkarriketatik eta elkarrekintzatik ikastea proposatzen duena, alegia. bai indibidualki bai kolektiboki. Ikasleek komunikatzeko gaitasun menperatzea funtsezkoa da, eguneroko bizitzan sarritan argumentatu eta negoziatu behar izango du eta, oro har, bizitzako edozein arotan. baliagarria izango zaio

Honekin lotuta, *Hiznet hizkuntza plangintza* graduondoko sakontze egitasmo honetan hezkuntzaren alorreko bi eremu izan ditut aztergai, alde batetik eremu kurrikularra eta bestetik eremu ez-kurrikularra. Biak dira garrantzitsuak eta biak dira elkarren osagarri. Eremu kurrikularrean ahozko hizkuntza formala lantzeko eztabaida generoa aukeratzearen arrazoiak bi izan dira. Lehengo eta behin, ikasleek pentsatzen dutena egoki defendatzen ikasten dute eta sentitzen dutena sendo argudiatzen ikasten dute. Bigarrenez, eztabaida eta horrek dakarren prestaketan segida taldeka egiten denez gero, gelan ikasteko bide kooperatiboak eta dialogikoak baliatzen direla adierazi beharra dago.

Azken batean gelan eztabaidatzen ikasteak hizkuntza egoki eta era jasoan erabiltzea eskatzen du halaberrez: hizkuntz baliabide komunikatibo konplexuak menperatu eta egoki kudeatzen jakin behar dute ikasleek. Debateak prestatzen, gauzatzen eta aztertzen direnean, argudioak nolakoak diren ikusteko abagune garbia dugu, bai eta argudiozko testua nola antolatzen den ere. Era berean, ahozko argumentazio formalaren genero akademikoa lantzeaz gain, ikasleek hausnarketa eta gogoeta egiten ikasteko testuinguru ezin egokiagoa dute; gaitasun komunikatiboa ez ezik, norberaren gaitasun kritikoa ere garatuz.

Eremu ez kurrikularrak ere bere garrantzia du. Izan ere, haur edota gazte baten eguneroko bizitzan, eremu ez-kurrikularrak eremu kurrikularrak adina denbora behintzat suposatzen du. Beraz, euskararen normalizazioan aurrerapausoak eman ahal izateko, ezinbestekoa da, arlo akademikoaz gain, ikaslearen beste bizitza esparruetan ere

eragitea, haietan ohiko komunikazio hizkuntza euskara izan dadin bitartekoak jarritz. Ikasleen eguneroko harremanetarako hizkuntza euskara izatea lortu behar da. Ingurune euskaldunak sortu behar dira. Garrantzitsua da haurrek eta gazteek euskara eskolarekin ez lotzea, argi dago haurrek zein gazteek euskara eskolarekin soilik lotzen badute, hizkuntzarekin izango duten harremana oso ahula izango dela.

Urtez urte errepikatu daitekeen sekuentzia didaktiko hau oso baliagarria iruditzen zait etorkizun bati begira. Oso gutxi lantzen da ahozko hizkuntza hezkuntzan: aurrerantzean ildo beretik jardun beharra dago, gazteen gaitasun komunikatiboa hobetzen, erregistro formalean zein kolokialean. Honetarako landu eta hobetu behar diren alderdiak asko dira: egoeraren araberrako erregistroen erabilera egokia ahozko sintaxia, ahoz argudiatzeko nahiz kontraargudiatzeko baliabideak, lexikoaren aukeraketa eta erabilera, ez hitzezko elementuei arreta handiagoz erreparatzea, etab.

Beraz, ekinean eta presarik gabe, egunerokoan hizkuntza eta hezkuntza uztartzen jarraitu behar dugu.

## 6. BIBLIOGRAFIA

### LIBURUAK:

- Calsamiglia, H eta Tuson, A (1999) *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*, Barcelona: Ariel Linguística.
- Euskaltzaindia (1993): *Euskal gramatika laburra, perpauz bakuna*.
- Fuentes, C & Alcaide, E (2002) *Mecanismos lingüísticos de la persuasión*, Madrid: Arco.
- Plantin, C (1998): *La argumentación*, Barcelona: Ariel.
- Unzué, A. (2009). *Debaterako argudiatu. Bigarren Hezkuntzako arlo guztietarako proposamena*. Nafarroa: Nafarroako Gobernua.
- Vila, M. (2005): *El discurso oral formal*, Barcelona: Grao.

### ARTIKULUAK:

- Amonarriz Gorria, K., Osa, E., Arruti, I. (2004): *Ahozko eremu ez-kurrikularrean hizkuntz proiektuaren markoan*, **Soziolinguistika aldizkaria**, 51. alea, 137-158 or.
- Canals, R. (2015): *El pensamiento crítico en el aula* in **Aula de Secundaria**, 12.zka, 24-29 or.
- Cros, A & Vila, M (1999) *Los usos formales de la lengua oral y su enseñanza*, *Textos de Didáctica de la lengua y de la literatura*, 22 zka., 49-63 or.
- Cros, A. eta Vilá, M. (2001): *El oral formal, La discusión oral: argumentos y falacias* in **Revista Textos**, 29. zka, 1-9 or.

- Cuenca, MJ (1995) *Mecanismos lingüísticos y discursivos de la argumentación, Comunicación, Lenguaje y Educación*, 25 zka., 23-40 orr.
  
- García Azkoaga, I., Imaz Gaztelurrutia, A., Díaz de Gereñu Lasaga, L eta Alegria Susperregui, A.(2010): *Ahozkotasanaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan*, **Tantak aldizkaria**, 22.alea,7-42 or.
  
- Garro, E & Idiazabal, I (2005) *Debateak 10 urteko bi ikasle talde elebidunetan. Azterketa eta didaktika*, **Ikastaria**, 14 zka., 43-54 orr.
  
- Garro, E., Idiazabal I. eta Larringan, LM (2007): *Gaiaren eraikuntzarako baliabide diskurtsiboak debateetan* In Idiazabal I. & Garcia Azkoaga I. (ED) **Ahozko hizkuntza. Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan.**
  
- Gutiérrez, R. (2016): *Umeen bizipenak euskaraz*. Bai Euskarari Ziurtagiria. <http://www.baieuskarari.eus/bloga>
  
- Larringan, Luis M. eta Idiazabal, I. (2001a): *Ahozko euskara formala eta haren egitura sozio-diskurtsiboa*, V. Euskal Soziologia Kongresua, Bilbao.
  
- Larringan, Luis M (2001): *Debate con jóvenes: interlocución, tema y tarea*, **Textos**. Didáctica de la Lengua y de la Literatura, 29. zka, 21-30 or.
  
- Osa, E., Elorza, I., Muñoa, I. (2004): *Ikastolen hizkuntza proiektua ahazkotasanaren helduleku*, XI jardunaldi pedagogikoak, Ikastolen elkarte.
  
- Sainz Osinaga, M.; Garro, E.; Ozaeta, A. (2009). *Ahozko hizkuntza lantzen: Haur Hezkuntzan hasi eta Unibertsitateraino*. **Hik Hasi**, 140. zka, 6-13.
  
- Vilá, M (2010): *Seis criterios para enseñar la lengua oral en la Educación obligatoria*, (1-7 or.) in [www.leer.es](http://www.leer.es).



WEB GUNEAK:

- Euskaltzaindia: literatura terminoen hiztegia: [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)
- [www.santurtzieus.com](http://www.santurtzieus.com)
- [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net)
- [www.euskaljakintza.com](http://www.euskaljakintza.com)
- [www.erabili.eus](http://www.erabili.eus)
- [www.baieuskarari.eus](http://www.baieuskarari.eus)

PROPOSAMEN DIDAKTIKOAN ERABILITAKO BALIABIDEAK:

- Bideoak:
  - ✓ *Agustinos Alicante / Liga de debate 17 de Febrero de 2015* in <https://www.youtube.com/watch?v=O-gCqMPdTqc>
  - ✓ *Final liga de debate Universidad de Zaragoza 2013* in <https://www.youtube.com/watch?v=-sFdueW4fk8>
  - ✓ *Club de debate Carbalño 1/2* in <https://www.youtube.com/watch?v=cXSrtGhvbSA>
- Testuak:
  - ✓ *Bidaiatzeko modu berrien bila* in [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net)
- Ariketa gramatikalak
  - ✓ [www.euskaljakintza.com](http://www.euskaljakintza.com)

## 7. ERANSKINAK

### 1. Eranskina:

#### ARGUDIO MOTAK (Cros eta Vila, 2001)

- Testuinguru izaeradun argumentuak:
  - **Kausa eta ondorio argumentua:** ekintzen arteko harreman logiko bat ezartzen du.
  - **Autoritate argumentua:** hartzaileak onarturiko autoritatea aipatzen du.
  - **Eredu argumentua:** imitatua izan daitekeen eredu bat deitzen du.
  - **Onuraren argumentua:** tesi bat justifikatzen du ekintza jakin batek dakarren onura dela-eta.
- Errealitatearen egitura bultzatzeko argumentuak:
  - **Adibide batetik abiatuz eraikitako argumentua:** erreferentzia egiten dio ondorio jakin batera iritsarazten duen ekintza bati edota antzeko ekintzetara heda daitekeen ekintza bati erreferentzia egiten dio.
  - **Konparaketa eta metaforatik abiatuz eraikitako argumentua:** ekintza bat da, adibidea, argumentatzen ari denaren antzeko kasu bat edota lotura egin daitekeen irudi bat ekartzen duena.

Bi argumentu mota horiekin lotura duten falaziak:

- **Erasoa (*ad hominem*) eta deskalifikazio pertsonala (*ad quoque*):** lehiakidearen sinesgarritasuna zalantzan jartzen da irainduz, deskalifikatuz...
- **Erruki eskaera (*ad misericordiam*):** defentsaren balizkotasuna erakutsi beharrean solaskidearen errukia bilatzen da hori konbentzitzeko.
- **Autoritate faltsuan oinarrituriko argumentuak (*ad verecundiam*):** eztabaidarako gaien autoritate ez den pertsona edo instituzio baten hitzetan oinarritzen da iritzia.
- **Argumentu demagogikoa (*ad populum*):** talde baten interesetan oinarrituriko iritzian oinarri hartzen du, nahiz eta balio arrazionalik ez izan.
- **Boterearen gehiegizko erabilera (*ad baculum*):** mehatxua erabiltzen da arrazonatze argumentatuaren lekuan.
- **Kausalitate faltsuan oinarrituriko argumentua (*post ergo propter hoc*):** bi ekintzen artean lotura faltsu edo ez logikoa ezartzen da.

2. Eranskina: Argudio motak bereiziz: .

Ariketa: batu argudio mota bakoitzari bere adibidea;

- a. *Motorzaleok badakigu kaskoa beharrezkoa dugula.*
- b. *Hori esan du gehiengoak; beraz, egia da.*
- c. *Telebista bidez gutxi ikasten omen da, baina egia da dokumental didaktikoak eta lehiaketa entretenigarriak ere ematen dituztela.*
- d. *Kirola eginez, gorputz osoa indartzen dugu, eta gaitzak izateko arriskua ekiditen.*
- e. *Gure loba unibertsitarioak sei hilabetean ikasi zuen txinera; hortaz, unibertsitarioek erraz ikasten dituzte hizkuntzak. (F)*
- f. *Esate baterako, 50 urtetik gorako guraso gehienek ez dute mugatzen Interneten erabilera*
- g. *Gehienek ez dute grebarik egin nahi: grebaren kontra, %45; egun osoko grebaren alde, %35, eta egun erdiko grebaren alde, %20.*
- h. *Andereñoak ez du umerik; zerk daki berak umeei buruz?*
- i. *Gazteen artean, langabezia %50etik gora da Euskal Herrian; orokorra, berriz, %16 inguruan dago: zalantzarik ez da gazteek nozitzen dutela langabeziaren zamarik handiena.*
- j. *Deustuko Unibertsitateak iaz egindako ikerketa batek ondorioztatu zuen...*
- k. *Ezin dezakegu, alde batetik, birziklatzea bultzatu, eta, bestetik, kutsadura larria sortzen duten erraustegiak eraiki.*
- l. *Ondo dakizuenez, nik sekula ez nuke inoiz erabakiko herriarentzat kaltegarri litzatekeen ezer.*
- m. *Nork ez du osasun ona nahi?*
- n. *Entzule adituak zaretenez, ez duzue inongo arazorik izango onartzeko...*
- o. *Ondo dakizuenez, nik sekula ez nuke inoiz erabakiko herriarentzat kaltegarri litzatekeen ezer.*
- p. *Gure aurkakoek ez dute ez bururik, ez hankarik; zentzubako iritziak baino ez dituzte esaten.*
- q. *Istripu berdintsua gertatu zen Txernobylen, eta oraindik ere ez dakigu haren ondorio guztiak zeintzuk izan ziren.*
- r. *Herritar guztiak daude gure egitasmoaren alde.*
- s. *Gai horretaz ez dut ezer entzun nahi.*
- t. *Inondik inora ez da lortu berdintasuna soldatetan: emakumezkoek, Hego Euskal Herrian, zeregin berberetan, oraindik ere %15 gutxiago kobratzen dute.*
- u. *Herrialde batzuetan emakumeek "burka" eramatea derrigorrezkoa da; beste batzuetan, ostera, ez; beraz, onena da emakume guztiek buruko zapi bat eramatea.*

- 1. **Autoritate- edo aditu-argudioa:**
- 2. **Analogia edo ereduaren argudioa.**
- 3. **Kausa-ondorioen argudioa.**
- 4. **Adibide bidezkoa.**
- 5. **Datu objektiboak**
- 6. **Aurkako tesien argudioak errefusatzea.**
- 7. **Tesi kontrajarrien arteko oreka.**
- 8. **Hartzailea eta igorlea talde bereko edo iritzi orokorreko partaide egitea.**
- 9. **Argudio bateraezinak.**
- 10. **Galdera erretorikoa**
- 11. **Hartzailearen sentimenduetara jotzea,**
- 12. **Igorlearen ustezko prestigioan oinarritzea:**
- 13. **Pertsonen aurkako argudioak eta irainak:**
- 14. **Datu okerrak edo gezurrak esatea ("Gezurrak, hankak labur").**
- 15. **Kausa-ondorio erlazio okerrak egitea:**
- 16. **Adibidetik edo datu batetik orokortzea:**
- 17. **Erabatekotasuna aipatzea:**
- 18. **Gehiengoaren iritzia egia bihurtzea:**
- 19. **Eztabaidatzearen aurka argudiatzea:**
- 20. **Ehunekoak zatituta erabiltzea, gezurrezko gehiengoak egiteko:**
- 21. **Erdibideko argudioak egokientzat jotzea:**

3. eranskina

- <http://www.euskara.euskadi.eus/lur-hiztegia/>

Egunkariak:

- [www.naiz.eus](http://www.naiz.eus)
- [www.berria.eus](http://www.berria.eus)

Aldizkariak:

- [www.argia.com](http://www.argia.com)
- [www.gaztezulo.eus](http://www.gaztezulo.eus)
- [www.uztaro.eus](http://www.uztaro.eus)

Ingurunea- Natur zientziak:

- [www.zientziategia.euskadi.eus](http://www.zientziategia.euskadi.eus)
- [www.zientzia.eus](http://www.zientzia.eus)

Euskal gaiak:

- [www.euskalkultura.com](http://www.euskalkultura.com)
- [www.armiarma.eus](http://www.armiarma.eus)
- [www.idazleak.eus](http://www.idazleak.eus)

Denetarik:

- [www.eitb.com](http://www.eitb.com)
- [www.sustatu.eus](http://www.sustatu.eus)
- [www.hiru.com](http://www.hiru.com)
- [www.erabili.eus](http://www.erabili.eus)
- [www.zernola.net](http://www.zernola.net)
- [www.zuzeu.eus](http://www.zuzeu.eus)
- [www.entzun.com](http://www.entzun.com)
- [www.erabili.eus](http://www.erabili.eus)
- [www.zernola.net](http://www.zernola.net)

Hiztegiak:

- [www.hiztegia.net](http://www.hiztegia.net)

#### 4. Eranskina: artikulua

### **Bidaiatzeko modu berrien bila**

Etxeko eltzetsuak betetzea zailagoa da krisia hasi zenetik, eta horrek ohitura asko aldatzera behartu ditu familia euskaldunak: etxeko gastuak antolatzeke modua, kontsumo-ohiturak, soldatak kudeatzeko era... Guztia aldatu da. Eguneroko gastuetarako diru-kopurua murriztu egin dugu, baita aisiarako erabiltzen duguna ere. Horregatik, askok eta askok euren oporraldia beste era batera antolatzeari ekin diote. Horren lekuko da Miren Alkorta. Berak bidaia-agentzia batean egiten du lan, eta krisia hasi zenetik oporrak egiteke modua asko aldatu dela esan digu: “Oporrak garrantzitsuak dira guretzat, oporraldiari ez diogu uko egin nahi, baina orain urtean hiru aldiz atera ordez, oporraldi bakarra egiten dute familiek”. Oro har, atsedean hartzeari ematen zaio garrantzia. Hori dela eta, bidaiariek etxean geratu aurretik nahiago dute irteera motzagoetara jo: “Lehen hamar eguneko egonaldia egiten zuten askok; orain astebetekoak saltzen ditugu gehien. Horrez gain, Aste Santuetan jendea gutxiago ateratzen da, eta kanpoan bizi den familiarrekoren bat baldin badaukate, harengana joaten dira egun batzuk igarotzera”.

### **Egonaldi laburragoak**

Lana eduki badaukatela aitortu du Alkortak, baina orain, “fakturazio bera lortzeko, lan gehiago” egin behar dute. Hau da, “agian, lehen baino jende gehiago ateratzen da kanpora, baina gutxiago gastatzen dute”. Leku turistikoaren eskaera ez da bereziki igo, askotan prezio berarekin “eskaintza erakargarriagoak” daudelako. Hori bai, “eskaintza errealitateira moldatu” behar izan dute. Esaterako, lehen Karibera joateko eskaera oso handia zen, baina orain, batik bat, Balear eta Kanariar uharteak aukeratzen dituzte bezeroek.

### **Kanariar uharteek daukate eskaerarik altuena. Irudian, Tenerife.**

Prezioak mantendu egin direla uste du, baina, krisiaren aurretik ez bezala, oporrak hilabete batzuk lehenago hartzeko ohitura zabaldu da, “beherapen handiak izaten direlako”. Lehen, azken unera arte zain egoten zen jendea, azken orduko eskaintzen zain. Gazteen ohiturak ere aldatu egin dira eta orain bidaia egiteke txartelak bakarrik erosten dituzte askotan. “Nahi duten lekura ailegatu eta, dirua aurrezteko, han bilatzen dute non lo egin. Lehen dena lotuta eramaten zuten hemendik”.

### **Aukera merkeak eta interesgarriak, Interneten**

Baina agentzietatik haratago, badira merke bidaiatu ahal izateke modurik. Internetek ateak ireki dizkie diru asko xahutu nahi ez dutenei eta bidaiatzeko ekimen ugari topatu daitezke sarean. Ekimen hauek ez dira berriak, baina, krisia dela medio, gero eta jende gehiagok jotzen du aukera horietara. Horietako bat etxea trukatzeko da. Interneten dagoen webgune batean izena eman eta gure etxea oporrak bertan igaro nahi dituzten bidaiarien zerbitzura jartzen dugu. Trukean, webgunean topatzen ditugun lekuetara joan gaitzke, ezer ordaintzeke; beraz, oporraldia beste batzuen etxean igarotzen dugu, haiek gurean igarotzen duten bitartean. Aukera merkea da eta probatu dutenek aukera paregabea dela esaten dute.

Merkeagoa da eta, horrez gain, ohiko turismoa gustatzen ez zaionarentzat egokia da, bisitatzen den leku horretako biztanle bat gehiago delako. Etxebizitzako jabeen

ingurukoekin ere harremanetan jartzen dira askotan bidaiariak eta, haiei esker, ingurua, bertako kultura, ohiturak... ezagutzeko aukera daukate.

Beste aukera bat gure ibilbide bera egiteko asmoa duten bidaiariekin autoa partekatzea da, bidaia merkeagoa izateko. Oso erraza da. Gidariak bere ibilbidearen berri ematen du Interneten. Buruan daukagun bidaiarekin bat baldin badator, berarekin harremanetan jarri eta elkarrekin egin dezakegu bidaia. Aukera hau nahi dutenek Interneten bertan daukate informazio guztia eskura; aukera aproposa gazte-jendearentzat.

### **Oporrak pasatzeko modu berriak**

Aukerak ez dira hor bukatzen. Nork bere etxean bidaiariak hartzea ere modan jarri baita. Mundu mailan Couchsurfing izenarekin ezagun egin da mugimendu hau. Gure etxeko sofa bidaiarien zerbitzura jartzen dugu, gu bertan gaudela. Trukean, guk ere bidaiatu dezakegu, eta izena emanda daudenen etxeetara jo. Beste aukeretan bezala, nahikoa da webgune batean izen ematea, horrela bidaiatu ahal izateko. Esperientzia ikaragarria dela diote horrela bidaiatzen dutenek; izan ere, jende ugari eta era askotakoak ezagutzeko aukera ematen du, tarteka toki eta jende ez hain atsegina ezagutzea suertatzen bada ere. Bai kanpora irtetean, bai kanpotik gurera etortzen direnean, oso aberasgarria dela azaltzen dute era horretara bidaiatzen dutenek, mundu guztiko jendea ezagutzeko aukera ematen duelako, etxetik mugitu ere egin gabe.

(Iturria: [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net))

## 5. Eranskina

Elkarreragina lantzeko hainbat baliabide:

### **Iritzia emateko:**

- "Nik uste dut... -la"
- "Iruditzen zait... -la"
- "Esango nuke ...-la"
- "Nire ustez"
- "-t(z)earen alde/kontra nago"
- "Eta zergatik ez duzu ...-tzen"
- "Oraingoan ... bazenu"

### **Desadostasuna adierazteko:**

- "Ez nago konforme / ados"
- "Ez zait iruditzen"
- "Ez dut uste horrela denik"
- "Ez nator bat zurekin"

### **Gaitzespena adierazteko:**

- "Horrela ezin da ....-rik egin"
- "Ez da ... rik egiterik"/"Horrela egingo duenik ez dago."
- "Ezin dute gehiago horrekin."
- "... eraman ezinezkoa zait"

### **Gomendatzeko**

- "Zergatik ez duzu ... -tzen"?
- "Burratu zaizu ... -tzea"?
- "Hobe duzu/zenuke ... -tzea"
- "Nik zuk bezala/legez ... egingo nuke"

Aurreko funtzioak betetzeko testu antolatzaileak:

**Arrazoiak gehitzeko:**

gainera, baita ... ere, are gehiago, ez hori bakarrik, batetik... bestetik..., -(e) nez..., -lako

**Arrazoiak kontrajartzeko**

baina, hala ere, edozein modutan, dena den, nahiz eta, arren...

**Konklusiorako**

beraz, honela, ondorio gisa, laburbilduz, horregatik, , hau guztia dela eta, arrazoi hauengatik...

Bestelako funtzio osagarriak

**Informazioa jaso dela adierazteko**

"Ondo", "Bai", "Ja", "Ea, ikus dezagun"

**Funtzio metadiskurtsiboa**

Hau da, burutzen ari den edo burutu nahi den edo burutu den eginkizunarekin berarekin lotuak; argudiatze-eginkizunarekin lotuak, alegia.

- "X-ek esandakoari erantzungo diot"; "Ez moztu, mesedez", "Barkatu, baina nire txanda da", "Askotan errepikatu dut", "Ez didazu ondo ulertu", "Nahiko nuke nik esandakoari norbaitek erantzutea", "X-ek esandakoa laburtzen badut..."...

**Erregulaziozkoak**

- "Ez da hala?", "Entzudazu", "Begira zer diotsudan", "Jarrai dezagun"...

**Intentsitatea modulatzeko dutenak**

- "Asko, oso..." jakina, " horixe baietz"...

**NEGOZIAZIORAKO ESTRATEGIAK**

**Zerbait lortzeko edo konpentsatzeko estrategiak**



- Hitz jakin bat aurkitzen ez denean, bere definizioa eman: "Zera, erreklamazioa egiteko aurkezten duzun eskari hori..."
- Atzerritartzea: bigarren hizkuntzaren ahoskerarekin eman ama hizkuntzako hitz bat: "konklusioa", "erregulazioa"...
- Atzeratzeko edo denbora irabazteko estrategiak:
- Betegarriak, zalantzazko trikimailu eta taktikak: "hara", "egia esan", "zera esan nahi dut"...
- Norberak edo besteak esandakoa errepikatzea

### **Birformulazio estrategiak**

- Norberak esandakoa konpondu: "Esan nahi dut..."
- Norberak esandakoa beste modu batera esan.

### **Elkarreragina estrategiak**

- Eskaerak: errepikatzeko eskatzea (Esango zenuke berriro, mesedez? Zer esan duzu?, Nola...?); argibideak eskatzea (Zer esan nahi (izan) duzu horrekin? Ez dizut ondo ulertu.); baieztatzeko eskatzea (Hau esan nahi izan duzu? Ondo ulertu dut?...); ez ulertzearen adierazpenak (hitzezkoak eta ez-hitzezkoak).
- Erantzun posibleak: Berriz esatea, beste era batera esatea, azalpen luzeagoa ematea, murriztea, baieztatzea, konpontzea...; begiratzea, behatzea...

### **Elementu paraberbalak**

Debatearen bilakaeran hitzen bidezko komunikazioa osatzen duten bitarteko paraberbalek eragin nabaria dute debatean; keinuaren eta hitzaren artean daudenak dira: begiradak, keinuak, pertsonen arteko distantziak, ahotsaren tonua... Horregatik, beharrezkoa da kode paraberbalak lantzea, ikasleei horien eraginaz ohartarazi eta asimilazioa bultzatzeko.

(Iturria: [www.santurtzieus.com](http://www.santurtzieus.com))

6 . Eranskina

Aipatu, zuen ustez, aurkezpenetan egiten diren akatsik ohikoenak:

- 1 Apunteak irakurri
- 2 Begietara ez begiratu
- 3 Itxura ez zaindu
- 4 Urduri-urduri mugitu
- 5 Entseatu gabe egin
- 6 Zurrun-zurrun egon
- 7 Diapositiben testua irakurri
- 8 Gehiegi hitz egin
- 9 Ez liluratu, aspertu
- 10 Amaiera borobildu gabe, alferrik galdu

7. Eranskina

Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Solaskideek denborari buruz moderatzaileak egin adierazpenak kontuan hartzen dituzte.</li> <li>-Solaskideak egoera komunikatiboari dagokion hizkera zuzen eta egokian mintzatzen dira</li> <li>- Solaskideei eta testuinguruari erreferentzia egiten da deixien bidez.</li> <li>- Hitzunek pertsona guztiakin era berean hitz egiten dute.</li> <li>-Hitzunek solaskideekiko begirunea erakusten dute eta adeitasunez argudiatzen dute.</li> </ul>
Koherentzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Hiztun bakoitzak argi azaltzen ditu gaia eta bere ikuspuntua.</li> <li>-Hiztun bakoitzak defendatu nahi duen tesira zehazten ditu argudioak.</li> <li>-Hitzunek argudio batzuk beste batzuekin ongi lotzen dituzte.</li> <li>-Lexikoa aberasteko hiponimoen eta hiperonimoen erabilera egokia da.</li> <li>-Adibidek erabiltzen dira tesia ulergarriagoa izan dadin.</li> <li>-Hasierako gaia mantentzen da.</li> <li>-Ideia bat argitzeko, behin baino gehiagotan errepikatzen da beste hitz edota esaldi batzuk erabiliz.</li> <li>-Hitzen errepikapena saihesten da, sinonimoak eta aldaera lexikoak erabiliz.</li> </ul>
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Diskurtsoa antolatzeke lokailuen erabilpena egokia da.</li> <li>-Kausa eta ondorioaren arteko erlazioak adierazteko antolatzaileen erabilpena egokia da.</li> <li>-Perifrasien, metaforen eta metonimien erabilpena, errepikapen aspergarriak saihesteko asmoz.</li> <li>-Diskurtsoaren atalak bereizteke lokailuak erabiltzen dira.</li> <li>-Diskurtsoaren interpretazioa gaiaren, ikuspegiaren edo modalizatzaileen lokailuekin bideratzen da.</li> </ul>

## 8. Eranskina

### **Kontrastea**

Dena delarik ere, ...  
Horren aurka...  
Esanak esan, ...  
Edozein modutan ere, ...  
Hori horrela izanik ere, ...  
Zernahi gisaz (ere), ...  
Edonola ere, ...  
Aurrekoaren kontrara, ...  
Kontuan hartu baina, ...  
Datorrena datorrela, ...

### **Kausa**

– (e)lako/-(e)lakitok  
– (e)nez (gero)  
Bait-  
Kontutan hartuta...  
– t(z)eagatik/-t(z)earren  
– (r)i esker  
... dela medio/kausa/bide  
Bistakoa denez...  
Honengatik, horregatik, hargatik

### **Baldintza**

Baldin eta...  
Beti ere...

### **Zalantza**

Badirudi...  
Beharbada...  
Agian...  
Apika...  
Ez dut argi ikusten...  
Ez nuke esango...  
Izan liteke...  
Zaila da sinestea...

### **Kontzesioa**

(Zerbait onartzeko)  
Zalantzarik gabe...  
Ziur asko...  
Noski...  
Egia da...  
Onartzen dut...  
Konturatzen naiz...  
Jakina...

### **Ondorioa**

Beraz...  
Honela/horrela/hala...  
Esanak esan...  
Kontutan izanik...  
Honen/horren ondorioz...  
Honen/horren kausaz (karia)...  
Bada...

### **Norberaren inplikazioa**

Nire iritziz/ustez  
Uste dut ...-(e)la  
Nire ustetan...  
Neure baita...  
Askok uste dugu...  
Neure ikuspuntutik...

**Ñabardurak**

**egiteko**

Hala eta guztiz ere...  
...(aditza)-ta/da ere  
Baina...

**Gaia lotzeko**

Ildo beretik...  
...(r)i dagokionez

**Konklusioa/bukaera  
emateko**

Bukatze (amaitzeko)  
Amai dezaguz esanez...  
Azkenik...  
Honela/horrela/hala...

**Amore emateko**

Egia da, baina..  
Litekena da, baina...  
Ados, baina...  
Egia bada ere,...  
Bat nator, baina...

**Erabateko baietza  
eta ezetza**

Ziur...  
Bistakoa da...  
Dударik gabe...  
Ezinezkoa da...  
Jakín badakigu...  
Ez dago zalantzarik...  
Gezurra galanta...  
Eztabaida ezina da...  
Hori diona oker dago...  
Behar-beharrezkoa da...

**Negoziatu eta amore emateko**

Adoz bazeunde, gustatuko litzaiguke...  
Hala nahi bazenute...  
Gogorarazi nahi genizueke...  
Zera uler dezazun gustatuko litzaidake...  
Utz iezadazu azaltzen...  
Zera ziurtatzen dizugu...  
Egoeraz jabe zaitez...  
Zu ni bazina, ulertuko zenuke...  
Ezin duzu zeure horretan jarraitu...

( Iturria: Euskaltzaindia, 1993 : *Euskal Gramatika Laburra, Perpaus Bakuna*)

9. Eranskina

1. Ariketa. Esaldiak berridatzi

- Diotenez, akerraren pertsonifikazioa da Matxin izena.  
\_\_\_\_\_ omen \_\_\_\_\_
- Mundu honetan jende gogorak egiten du aurrera; uste hori izan zuen gaztetan eta zahartzaroan.  
\_\_\_\_\_ ustea \_\_\_\_\_ , baita  
\_\_\_\_\_ .
- Aurten etxea erosteko modua izango dugulakoan gaude.  
\_\_\_\_\_ ahal \_\_\_\_\_ ustea \_\_\_\_\_  
.
- Ez zenekiten? Patxi apaiz egitekotan dabil!  
\_\_\_\_\_ , ala?
- Gure umeek, musikarako joera izanda ere, ez lituzkete utzi beharko beste lanak. Ni, behintzat, horretan nago.  
\_\_\_\_\_ ba... \_\_\_\_\_ , ez dut uste  
\_\_\_\_\_ .
- Esan zaio makina bat aldiz baina horrek berearekin jarraitzen du. Niri hala iruditzen zait, behintzat.  
\_\_\_\_\_...gatik,  
\_\_\_\_\_ zait niri.
- Zuen pintura itsusiegia zen saria lortzeko.  
Hain \_\_\_\_\_ non \_\_\_\_\_ .
- Hain azkar etsita, ez dakit ba zeure burua gobernatzeko gauza izango ote zaren!  
\_\_\_\_\_ , ona zaude zu \_\_\_\_\_  
!
- Ezin urduriago dago eta ezinezkoa da bera lasaitzea.  
\_\_\_\_\_ baino \_\_\_\_\_...tzerik.

2. Ariketa: Esaldiak egin honako antolatzaile edota parafraasi hauekin:

- Gainera:
- Onartzen dut:
- Arren:
- ...dela medio/kausa/bide:
- –t(z)earen alde/kontra nago:
- Ez nator bat zurekin:
- Edonola ere:
- Zaila da sinestea:
- Nire ustetan:
- Utz iezadazu azaltzen:

10. Eranskina

IKASLEAK EBALUATZEKO TAULA (elkarreragina):

	ikas	lea	ikas	lea	ikas	lea	ikas	lea	ikas	lea	ikas	lea
Bere ikuspegia azaldu du	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o
Ekarpen berriak egin ditu: ez da mugatu argudio bakar bat etengabe errepikatzera.	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o
Besteen argudioak ulertu eta bere diskurtsoan txertatu ditu (argudio-kontraargudioa)	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o
Adibideak eman ditu bere iritzia indartzeko.	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o
Iritziak emateko baliabide aberatsak erabili ditu.	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o
Era egokian modalizatzen du diskurtsoa	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o
Keinuen kodea erabiltzen du diskurtsoari indarra emateko	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o
Solaskideek esaten dutena arretaz segitzen du	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o
Lokailuen erabilera egokia	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o
Gainontzekoek esandakoa birformulatzen du gero errefusatzeko	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o	o



## 11. Eranskina

### EKINTZA OROTARA:

#### -Denbora eta espazioa:

- Denboraren neurketa egokia izan da?
- Arazoak egon dira solaskideen artean denbora arautzerako orduan?
- Egokia da gela eztabaida baterako? Moldaketak egin behar izan dira?
- Ikasleak mahaiari egoki eseri dira?

#### - Informazio bilketa (gaitasun estrategikoa):

- Helburu komunikatiboa bete da?
- Nabaria da solaskideak gaiaz informatu direla?
- Nabari da parte-hartzaileak gaiaz informatu direla?
- Informazio iturri desberdinak konbinatzen ahalegindu dira?
- Dokumentatzeko eta argudiatzeko autoritate baliabidea erabili dute?

#### - Argudiaketa (gaitasun linguistikoa eta diskurtsiboa)

- Testu-generoaren berezko arauak errespetatu dira?
- Tesiaren defentsan argudio mota desberdinak erabili dira?
- Argudioak ongi uztartu dituzte tesiarekin?
- Kohesio mekanismoak erabiltzen dituzte argudioak antolatzeko?

#### - Diskurtsoa-hizkera (Gaitasun diskurtsiboa)

- Hizkuntza aldaera edo erregistro egokia erabili da?
- Hitz egitean jarrera zurrina edo egonkorra saihesten dute?
- Hitz hartzen dutenean debatare dagozkion jendetasunezko formulez baliatzen dira?
- Ahoakera garbia erabili dute?
- Paperaren morroi izan dira?

#### - Jarrera:

- Aktiboki parte hartu dute?
- Seriotasunez hartu dute ekintza?
- Solaskideekiko errespetua nabaria izan da?
- Diskriminaziozko esakerak erabiltzea saihestu dira?

## 12. Eranskina

### AUTOEBALUAZIOA

#### 1. Debatearen prestaketa

- a. Zenbat denbora eskaini diot?
- b. Gidoirik sortu al dut?
- c. Zer material erabili dut?

#### 2. Debatea:

- a. Aurreikusi bezala bete al dut?
- b. Jendea gaira ekarri al dut saioaren hasieran?
- c. Ideiak garbi azaldu al ditut?
- d. Behar den moduan bukatu al dut?

#### 3. Nola ikusi dut nire burua?

- a. Lasai eta gustura
- b. Urduri samar
- c. Beldurtuta
- d. Lasai baina aldi berean urduri

4. Eztabaida - saioan izan ditudan zailtasunak

- a. Hizkuntza aldetik?
  
- b. Ahoskera aldetik?
  
- c. Gorputz-espresio aldetik?

5. Taldekideak nola ikusi ditut?

- a. Aktiboki lan egin dute? \_\_\_\_\_
- b. Taldean giro ona egon dadin ahaleginak egin dituzte? \_\_\_\_\_
- c. Rolak banatzerakoan arazoak egon dira? \_\_\_\_\_
- d. Bakoitzak bere funtzioa ondo bete du? \_\_\_\_\_